Euskadiko Gazteriaren Kontseilua 2022ko Plangintza

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

SARRERA 1

1. ETXEBIZITZA 2

1.1 Gazteak eta emantzipazioa 3
1.2 Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean 5
1.3 Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa 5
1.4 Etxebizitza eta generoa 7
1.5 Migrazioak eta alokairua herrietan 9
1.6 Harremanak eragileekin 11
1.7 Egunerokoa 12

2.ENPLEGUA 15

2.1 Gazteak eta emantzipazioa 16
2.2 Lan istripuen protokoloa 16
2.3 Nazioarteko egunak enplegu arloan 17
2.4 Gazteak eta nekazaritza 19
2.5 Gazte Bermea 21
2.6 Etxeko Langile gazteak 22
2.7 Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta Unibertsala eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta gazteak 23
2.8 Gazte ekintzaileak 25
2.9 Eguneroko lana 27

3. HEZKUNTZA 29

3.1 HEZKUNTZA FORMALA 30
3.1.1 Hezkuntza Foroa 30
3.1.2 Euskadiko Eskola Kontseilua 32
3.1.3 “GAZTE gara GAZTE” Gazte solasaldiak 34
3.1.4 Hezkuntza eragileak 36
3.2 HEZKUNTZA EZ-FORMALA 37
3.2.1 Astialdiko ekintzen jarraipena eta zabalpena 37
3.2.2 Boluntariotzaren lanketa 39
3.2.3 Hezkidetzaren lanketa 42
3.2.4 Entzun Gaitezen 42
3.3 HEZKUNTZA: OROKORRA 42
3.3.1 Hezkuntzako Nazioarteko Egunak 42
3.3.2 Administrazioekin koordinatu 43

3.3.3 Egunerokotasuna 44
4. PARTAIDETZA 45
4.1 Aholkularitza 46
4.2 Gobernu Irekirako Aliantza (Open Government Partnership) 47
4.3 Partaidetza Plana 48
4.4 Lantaldeen koordinazioa 50
4.5 Material eta gelen lagapena 51
4.6 EGK Sendotzen 53
4.7 Euskadiko Gazteak Lankidetzan 54
4.8 Gazteriaren Foru Transpirenaikoa 55
4.9 Gizarte Aldaketarako Herritartasuna 57
4.10 Egunerokoa 58
5. BAKEA 60
5.1 Etikasi 61
5.2 Entzun Gaitezen 62
5.3 Bake eta bizikidetza lantaldea 64
5.4 Zurrumurruen Aurkako Sarearekin elkarlana 66
5.5 Gazteak, elkarbizitza, etorkizuna taldea 67
5.6 Guztiok Batera 69
5.7 Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean 69
5.8 Eragileekin elkarlana 71
5.9 Egunerokoa 72
6. AGENDA 2030 74
6.1 2030 Agendaren txertaketa 75
6.2 Formakuntza 76
6.3 2030 Gazte Plaza Proiektu Ibiltaria 78
6.4 Guztiok Batera 80
7. BERDINTASUNA 82
7.1 Gaur8 lantaldea 83
7.2 EGK-ko II. Berdintasun Plana 84
7.3 Gune Anitza 86
7.4 Berdintasun Protokoloak 87
7.5 Zaintzen Plaza 88

7.6 Hezkidetzaren lanketa 90
7.7 Etxebizitza eta Generoa 91
7.8 Nazioarteko egunak 91
7.9 Harremana feminismoko eragileekin 93
7.10 Egunerokoa 94
8. KOMUNIKAZIOA 96
8.1 Diseinatzaile gazteen lan-poltsa 96
8.2 Piztu! Buletin digitala 98
8.3 Sare sozialak kudeatu 100
8.4 www.egk.eus webgunearen mantenua 102
8.5 www.egk.eus webgunea kudeatu 103
8.6 Nazioarteko Egunak: Txapelketak 105
8.7 Lan-arloka sareak sortu 106
8.8 Barne komunikazioa 108
8.9 Komunikabideekin harremana 109
8.10 Egunerokoa 111
8.11 Beste lan-arloekin harremana 111
9. PRESIDENTZIA 114
9.1 Batzorde Iraunkorra 114
9.2 Lantalde teknikoaren koordinazioa 115
9.3 Batzorde Ekonomikoa 117
9.4 EGK-ko Batzar Orokorra 118
9.5 Elkarlana eta ordezkaritza 120
9.5.1 Eusko Jaurlaritza 120
9.5.2 Aldundiak 121
9.5.3 Eusko Legebiltzarra 122
9.5.4 Batzar Nagusiak 123
9.5.5 Udalak 124
9.5.6 Beste Erakundeak 125
9.5.7 Komunikabideak eta irudi publikoa 126
9.6 Gazteria Legea 127
9.7 Gobernu irekia (OGP) 128
9.8 Europako Gazteen Urtea 129

SARRERA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) 2022ko plangintzan, urte honetan aurrera eramango diren proiektuak aurkezten dira. Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko elkarlanean diseinatu dira, lan-arlo ezberdinen lantalde eta eragileek egindako ekarpenak ere kontuan hartuz. Izan ere, gazteriaren eta administrazioen arteko zubi lana aurrera eramateko ikuspegi zabalagoa ematen du lan egiteko honek.

EGK-k hainbat akordio eta lankidetza hitzarmen adosten eta sinatzen ditu erakunde publiko ezberdinekin, bere lana aurrera eraman eta diru iturriak bermatu ahal izateko. Honakoak dira 2022ari begira proiektuak aurrera eramatea ahalbidetu duten erakunde publikoak: Eusko Jaurlaritza Gazteria Zuzendaritza, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza eta Lehendakaritza; Emakunde; Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia; Bilboko Udala; Gasteizko Udala eta Donostiako Udala.

Gazteria kolektibo kolpatuenetariko bat izan da krisi egoeretan, eta honek ondorio latzak ekartzen ditu gazteen bizitzetako esparru guztietara. EGKren xede nagusienetarikoa, gazteen bizi kalitate eta egoeren inguruko analisia egitea da. Hau oinarritzat hartuta, ondorioak atera eta proposamen eta ekarpen ezberdinak administrazioei helaraztea lortu nahi da.

Bestetik, gazteriaren partaidetza aktiboa sustatze aldera, I. Partaidetza Planaren diseinua landuko da elkarte eta gazte eragile ezberdinen ekarpenekin, 2023. urteari begira martxan jartzeko asmoz. Egungo testuinguru sozioekonomiko aldakorra aintzat hartuta, gazteriak parte hartzeko mekanismo eta dinamika berriei atea ireki nahi zaie.

Aurten, Agenda 2030 lan arlo berria sortu da EGKn, lantzen diren proiektu eta ekintza guztietan Garapen Jasangarriko Helburuen ikuspegia txertatzeko asmoz zein gazteriaren artean hauen inguruko ezagutzak handitzeko ere.

Hau horrela, EGK-k euskal gazterian eragina izateko eta ekarpena egiteko lanean jarraituko du eta lan arloen jardunak, gazteen behar eta premien gaineko identifikazioa eta hauen baitako proposamenak azalerazten.

1. ETXEBIZITZA

Emantzipazioa bizitza proiektu autonomo bat sortzeko lehentasun bat izan arren, ia utopia eskuraezina da gaur egun euskal gazteriarentzat. Emantzipazio prozesua hertsiki loturik doa etxebizitza merkatuarekin eta lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuarekin, eta horren emaitza dira gaur egungo datuak: Euskadin batez besteko emantzipazio adina 30,2 urtetan kokatzen da eta euskal gazteen %18,2a bakarrik dago emantzipatuta.

Etxebizitzaren merkatu pribatuak, gazteen lan baldintza prekario eta ez-egonkorrak, parke publikoaren urritasunak eta eskaintzen den etxebizitza tipologia zurrunak eragin zuzena dute gazteen emantzipatzeko aukeretan eta emantzipatzeko moduan.

Etxebizitza lan-arloa 2019an sortu zen EGKn, Etxebizitza eta Enplegua biltzen zituen Bizibaldintzak lan-arloa bitan banatu zenetik. Euskal gazteriaren emantzipazio adina eta baldintzen hobekuntza beharra mahai gainean jarri eta bide honetan proposamenak egiteko helburuarekin egingo du lan 2022an ere Etxebizitza arloak. Gazteen kolektibo eta administrazioaren artean zubi lana egitea izango da erronka.

1.1 Gazteak eta emantzipazioa

Euskal gazteriaren emantzipazio tasaren joera kezkagarria zela agerikoa zen arren, egungo errealitatea azken urteetako gordinena da. 2008ko krisi ekonomikoaren ondoren etxebizitza baterako sarbidea zaildu zen gazteriarentzat, eta enpleguaren prekaritatearen arazoa orokortu eta normalizatu zen. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahasiz. Testuinguru honetan iritsi zen 2020an COVID-19aren ondoriozko krisi ekonomikoa, eta gazteak izan ziren berriz ere, kolpatuenak. Gauzak horrela, azkeneko datuen arabera Euskadiko 18 eta 29 urte arteko gazteen %18,2 bakarrik bizi zen gurasoen etxetik kanpo 2020 amaieran.

Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken krisi honek sorturiko egoera ekonomikoren ondorioz, baita lehenagotik pairatutako baldintzengatik ere.

Ez da ahaztu behar, gainera, gazteria ez dela kolektibo homogeneo bat, eta gazteriaren baitan beste hainbat faktorek (generoa, migrazio prozesu bat bizi izana, arrazializatua izatea...) zailtasun, oztopo eta diskriminazio erantsiak gehitu diezazkietela emantzipatze prozesuei.

Hori dela eta, garrantzitsua da gazte anitzez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat sustatzen jarraitzea, afera honetako gaiak jorratzeko eta lantaldean sorturiko iritzi eta beharrak politika publikoetara helarazteko.

Enplegu eta Etxebizitza lan-arloak 2019an banatu ziren arren, **Emantzipa...zer?** lantaldeak emantzipazioarekin lotura duten gaiak era bateratuan jorratzeko baliatuko da. Azken urteetan diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da, eta hau etengabe berrikusi eta osatzea izango da helburua. 2022an lantaldea indartzen jarraitzeko asmoarekin gazte kolektibo zein norbanako berriengana hurbiltzeko saiakera egingo da, lantzeko gai desberdinak planteatuz.

Lantalde hau Enplegu lan-arloarekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren ikuspuntu anitz batetik enplegu eta etxebizitzarekin lotura duten gaiak jorratzea, ekimenak eta neurriak aztertzea eta ondorioak ateratzea. Jomuga, hausnartutako ondorio hauek administrazioari helarazi eta politika publikoetan eragitea da batetik, eta euskal gazteriaren artean zabaltzea, bestetik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak enplegu eta etxebizitza arloaren gainean batuko dituen eztabaida-gune bat izatea.
- Gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta alternatiba eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Eztabaida-gunean sortutako ekimenei jarraipena ematea eta horren funtzionamendua kudeatzea eta bultzatzea gazte berriek parte-hartzea lortuz.

Garapena

EKINTZAK:

Lantaldearen koordinazioa eta proposamenei jarraipena eman.

Administrazioek garatutako enplegu eta etxebizitza politika publikoen kontrastea egin eta hobekuntza proposamenak sortu.

Lantaldea indartu eta ezagutzera eman kide berriak gehitu eta taldea aberaste aldera.

Lantaldearen bileren emaitzak eta aldarrikapenak sareen bidez zabaldu.

Lan arloko nazioarteko egunak landu.

Urte erdiko ebaluazioa, urte osoko ebaluazioa eta 2022ko plangintzaren onespena burutu.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Lantaldearen funtzionamendua eta gazteen parte hartzea: deialdien arrakasta, kideak gogotsu, proaktibo eta maiztasunez azaltzea bileretara.
- Egindako hausnarketen sakontasuna, proposatutako proiektuen kalitatea eta landutako ekimenen bideratzea.
- Lantaldeko gazteen proposamen eta hausnarketen aurrean administrazioak eta kargu politikoek duten jarreraren nolakotasuna: eskatutako bileren onarpena, eskaera eta aldarrikapenei egindako harrera eta hauek politika publikoetan txertatzen dituzten ala ez, besteak beste.

1.2 Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean

Proiektu hau Bakeko lan-arloarekin batera koordinatuko da, plangintzaren 5.7 Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean puntuan azalduko da.

1.3 Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa



Administrazioak gazteen emantzipaziora bideratutako neurri edota dirulaguntza desberdinak ditu, batzuetan, administrazio maila desberdinek eskaintzen dituztelarik. EGK-k 2020an eginiko **Gazteen Etxebizitza Egoera Ezagutzen** txostenean agerian geratu zen bezala, askotan gazteek euren udalak eta administrazioek eskaintzen dituzten aukerei buruzko informazio gutxi dute, edota ez dakite nora jo neurri hauen inguruko informazioa jasotzeko.

EGK-k administrazioak emantzipatzeko gazteei eskaintzen dizkien aukerak gazteriaren artean ezagutarazteko mapa interaktibo bat sortu zuen 2019an. Erreminta honen bidez gazteek bizi diren udalerria klikatuz zein aukera dituen modu erraz baten ikusteko aukera izango dute. Halaber, administrazio maila desberdinek aukera desberdinak eskaintzen baditu hauen arteko bateragarritasuna posible den edo ez agertzen da.

Mapa hau erabat osatu zen 2021. urtean eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zitzaion. Honek interesa erakutsi zuen erremintaren inguruan, eta bertan jasotakoak gazteriari bideratutako informazio, neurri eta laguntza guztiak bilduko lituzkeen erreminta batean jasotzeko asmoa adierazi zuen. Gauzak horrela, 2022an mapako informazioa eguneratuko da eta Eusko Jaurlaritzari erremintaren trantsizioa egingo zaio.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Sortutako **mapa interaktiboa** eguneratzea, trantsizioa egitea eta zabalpena egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteek administrazioak hauentzat eskaintzen dituen emantzipatzeko neurriak eta dirulaguntzak ezagutzea eta berauek ezagutaraztea.
- Euskal gazteriaren eta administrazioaren arteko zubi lana egitea.
- Administrazio eta gazteen artean dagoen harresiari irtenbide ematea.
- Administrazioaren neurri eta programak gazteen artean ezagutzera ematea.
- Tokiko administrazioekin harremana sendotzea.
- Eusko Jaurlaritzarekin batera zabalpen bateratu bat gauzatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Mankomunitateekin eta beste administrazio batzuekin harremanetan jarri.

Administrazio desberdinen neurrien osaketa eguneratu 2022an indarrean dauden laguntzetara.

Mapa publiko egiteko zabalpen plana prestatu eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatu.

Zabalpen plana gauzatu.

Balorazioa gauzatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- 2022 urtean dauden neurrien balorazioa.
- Erremintaren trantsizioaren ibilbidea eta produktu finalean EGKren lana nola islatzen den.
- Zabalpenaren hedapen kuantitatibo eta kualitatiboa.
- Gazteek erremintari ematen dioten erantzuna.

1.4 Etxebizitza eta generoa

EGKn genero ikuspegia zeharkako balorea da eta gainontzeko lan-arloetan egin den moduan, Etxebizitza arloan ere genero perspektiba txertatzea ezinbestekotzat jo da, beraz, bide honi ekin zitzaion 2020an. Alde batetik, etxebizitzarako sarbidean gizon eta emakume gazteen arteko nolakotasuna aztertu nahi da proiektu honekin, eta generoaren eraikuntzak espazioan duen eraginari buruz hausnartu. Bestetik, etxebizitzen tipologia eta eredu berrien inguruan ere ikertu nahi izan da. 2021ko jarduna, hain zuzen. Etxebizitza kolaboratiboetan eta hauek eskaintzen zituzten elkarbizitza feministetarako aukeretan zentratu zen.

Urte beraren amaieran, Gazteriaren Euskal Behatokiak *Etxebizitza Emantzipazioaren Kostua Euskadin* txostena argitaratu zuen, 2020aren amaieran euskal gazteen emantzipazioak, orokorrean, eskaintzen zituen datu lazgarriak agerian utziz. Egoeraren gordintasunean ordea, zeharkako faktore batzuk daude, etxebizitzara sarbidea are eta zailagoa egiten dutenak, hau da,

emakumea izatea, 18 eta 24 arte bitartean izatea eta gipuzkoarra izatea.

Aldiz, emantzipazio tasa altuagoa dute emakumeek gizonek baino, hau da, emakumezko gazteak lehenago emantzipatzen dira gizonezkoak baino.

Zein mekanismo daude honen atzean? Zer eragin du honek emakume gazteek emantzipatzeko egiten dituzten aukeretan? Bikotekidearekin, familia hala beste pertsona batzuekin loturak, mendekotasunak eta zorpetze egoera handiagoak bizi al dituzte emakumeak etxebizitzarako sarbidean?

Proiektu hau Berdintasuna lan arloarekin batera kudeatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Emakume gazteek emantzipatzeko zein aukera, bizi-baldintza eta lotura dituzten aztertzea eta hauen eraginak eta ondorioak plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Emakume eta gizonek etxebizitza sarbiderako aukera berdinak ez izateak honek euren bizitzetan dituzten eraginei buruzko bibliografia aztertzea.
- Euskal testuinguruko datu kuantitatibo eta kualitatiboak lortzea.
- Euskal emakume gazteen emantzipazioaren nolakotasunaren ondorioak ateratzea.
- Ondorioak gazteriari modu berri eta erakargarri batean helaraztea.
- Administrazioan eta berdintasun eta etxebizitzako politika publikoetan eragitea.
- EGKren diskurtsoa aberastea.
- Berdintasuna zeharkako balore gisa praktikara eramatea.

Garapena

EKINTZAK:

Emakume eta gizonek etxebizitza sarbiderako aukera berdinak ez izateak honek euren bizitzetan dituzten eraginei buruzko bibliografia aztertzea.

Galdetegia diseinatu eta eraiki.

Galdetegia zabaldu eta irekita mantendu.

Galdetegiaren emaitzak eta ikerturiko bibliografia gurutzatu eta ondorio txosten bat idatzi. Sortzaile talde bat aukeratu eta txostena helarazi.

Ekitaldia antolatu eta gauzatu.

Ondorioak plazaratu eta ebaluazioa.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Ikerketa bibliografikoaren emaitza kualitatiboen eta kuantitatiboen kalitatea.
- Galdetegian parte hartu duten gazteen kopurua eta bildutako erantzunen interesa.
- Gai honen aurrean gazteen erantzuna eta jarraipena. Bai ekitaldiei dagokienez, kuantitatiboki eta baita ere, kualitatiboki (jarrera, interesa etab.).
- Ondorioak modu berritzaile batean plazaratzeak duen erantzuna.
- EGKren diskurtsoa eratzeko lanketaren nolakotasuna.

1.5 Migrazioak eta alokairua herrietan

Enplegu duin eta egonkor bat izan eta emantzipatzea gazte batentzat hain prozesu zail bihurtu den honetan, jakina da gazte batzuek emantzipatu edo jaio diren ingurunean bizitzearen arteko aukera egin behar izaten dutela. Beste hitz batzuetan esanda, euren herri eta hirietan ezin, eta emantzipatu ahal izateko migratu egin behar izaten dute. Honek lurralde segregazioa eragiten du eta migrazioen ondorioz, jatorrizko auzo edo herriek duten komunitate ehundurak pixkanaka

ahultzen dituzte.

Aldi berean, hirietatik aldirietako auzo eta herrietara migratzen duten gazteak, beste errealitate batekin topatzen dira. Herrietan ez da askotan alokairu eskaintza zabalik izaten.

Proiektu honen bidez, beraz, lurraldean zehar gazteek egiten dituzten migrazioak eta tokiko hiri eta herrien araberako alokairu eskaintzen aldaerak aztertu nahi dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAE barnean gazteek emantzipatzeko egiten dituzten migrazioak aztertzea eta lurraldean zehar emantzipatzeko duten eskaintza erreala jasotzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EAE barnean gazteek emantzipatzeko egiten dituzten migrazioak aztertzea.
- Migrazioen arrazoiak eta ondorioak ikertzea.
- Herrietan emantzipatzeko gazteek dituzten alokairu aukerak aztertzea.
- Ondorioak bildu, Emantzipa...zer? lantaldean landu eta proposamenak egitea.
- Administrazioari ondorioak, ekarpenak eta proposamenak helaraztea.
- EGKren diskurtsoa aberastea.

Garapena

EKINTZAK:

Antzeko ikerketak aurrera eramaten ari diren administrazioekin bildu.

Migrazioen eta alokairuen inguruko ikerketa diseinatu eta gauzatu.

Ondorioak **Emantzipa...zer?** Lantaldean landu.

Ondorioak eta proposamenak bildu eta zabaldu.

Ebaluazioa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE



Ebaluazioa

- Egindako ikerketaren emaitza kualitatibo zein kuantitatiboak.
- Ateratako ondorioen sakontasuna.
- Lantaldean ondorioek duten ibilbidearen kalitatea eta ondorioz sortzen den diskurtsoaren sakontasuna.
- Administrazioaren erantzunaren nolakotasuna.

1.6 Harremanak eragileekin

Emantzipazio alorrean eragile askok eta anitzek dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta Etxebizitza arloan lan egiten duten elkarteen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan gazte berrien parte hartzea lortzea.
- EGK-ko elkarteen artean etxebizitza lantzen dutenekin harremana sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

Emantzipazio arloko agenteekin (elkarteak eta administrazioak) bilerak egin harremanak sendotzeko eta berriak egiteko.

EGK-ko eta EGK-koak ez diren elkarteen artean gazteen parte hartzea bultzatu emantzipazio proiektuetan.

Emantzipazioaren arloan EGK-k landu ez dituen arazoak dokumentatu.

EGKrentzat interesgarriak diren proiektuetan eta jardunaldietan parte hartu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin biltzea.
- Egindako kontaktu berri kopurua.
- EGK eragile ezagun horien artean ezagutzera eman izana.

1.7 Egunerokoa

EGKn lan-arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak biltzen dira Etxebizitza lan-arloaren egunerokoan, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatzea beste lan eremuekin elkarlan egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Prentsarekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.

- Gazteria Planak, gazteekin loturiko Etxebizitza Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egitea.
- Etxebizitza eta gazteriaren inguruko datu eguneratuak izatea.
- Beste lan-arloen lanaren kontrastea egitea.
- Lantaldearen formazioan parte hartzea.
- Lan-arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egitea.
- Batzorde Iraunkorrarekin eta lankideekin harremana / lankidetza.
- Memoriak eta Plangintzak kudeatzea eta ebaluatzea.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Prentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean.

Gazteria Planak, gazteekin loturiko Etxebizitza Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.

Beste lan-arloen lanaren kontrastea egin.

Egutegiak hala eskatzen duenean ekintza desberdinak burutu.

Aholkularitza eman.

2022ko memoriak eta 2023 urterako plangintzak prestatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Barne komunikazioa eta kalitateko kontrasteak.
- EGKren eguneroko lana eta funtzionamendu egokia.
- EGKren kanpo komunikazioa nolakoa den.
- Bileren eraginkortasuna.

2.ENPLEGUA

Prekaritate hitza askotan erabiltzen da gazteen lan merkatuaren egoera definitzeko. Desenplegua, partzialtasuna, aldibaterakotasuna edota soldata baxuak ere ez dira ezezagunak egiten gazteen enpleguari dagokionez.

Gaur egungo gazteen prestakuntza maila inoiz baino altuagoa bada ere, krisi batetik bestera saltoka ibiltzeak, lan merkatuaren egoerak eta baliabide material eta ekonomikoen faltak ez dute batere erraza jartzen gazteen autonomia eta emantzipazioa aurrera eramatea.

Enpleguko lan-arlotik EGK-k gazteen errealitatea aztertzen eta euren bizitza duin, autonomo eta independendienteen alde egiten jarraituko du. Honetarako ezinbestekoa den kalitatezko enplegurako dauden ekarpen eta aldarrikapen ezberdinak kontuan izanda, gazteriaren ikuspuntutik betiere.

2.1 Gazteak eta emantzipazioa

Proiektu hau Etxebizitza lan-arloarekin batera koordinatuko da, plangintzaren 1.1 Gazteak eta emantzipazioa puntuan azalduta dago.

2.2 Lan istripuen protokoloa

LAN ISTRIPURIK EZ!
SIN ACCIDENTES LABORALES

LAN ISTRIPURIK EZ!
SIN ACCIDENTES LABORALES

EGK-k salaketa publikoa egiten du gazteen lan istripuen aurrean, 2017. urtean garatutako protokoloren bitartez. Lan istripua Euskadin ematen den edo Euskadiko 16 eta 30 urte bitarteko gazte bati eragiten dion kasuetan aktibatzen da, langilea larriki zauritzen edo zentzen denean.

Honen bitartez istripu hauetako askoren kausa den prekaritatea salatzeko adierazpen publikoa egiten da eta 2022ko urtean zehar aurrera eramaten jarraituko da. Horretarako EGKren webgunea eta sare sozialak baliatuko dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Maiztasunez gertatzen diren eta bereziki gazteak kolpatzen dituzten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatzea EGK-ko webgunean zein sare sozialen bitartez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte langileen heriotza edo osasun arazoen ondorioz ematen diren lan istripuen atzean dauden arrazoi prekarioak eta bestelako lan baldintza bidegabeak salatzea.
- Gazteriaren duintasun sozioekonomikoaren oinarriak aldarrikatzea, lan baldintzak eta lan osasuna hobetzeko.
- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin harremanetan ipintzea.
- Lan istripuen protokoloan pertsonen arteko aniztasunak eta diskriminazioak kontuan hartzea.

- Arazoaren aurrean EGKren gaitzespen postura argi gizarteratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Protokoloaren datuak eguneratu.

Albisteen jarraipena eta gertatzen diren lan istripuen informazioa bildu.

Lan istripuen ondoriozko gazteen heriotzen eta istripuen salaketa.

Protokoloaren genero ikuspegiko lanketa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urtean zehar protokoloa zenbat alditan aktibatu behar izan denaren balorazio kuantitatiboa.
- Balizko lan istripuak gertatutakoan jakinaren gainean egon izana eta prozedura hau hobetu izana.
- Protokoloa aktibatu izana beharrezkoa izan den kasuetan.
- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin izandako harremana.
- Protokoloa aktibatzerakoan honek izan duen zabalpena eta irismena.

2.3 Nazioarteko egunak enplegu arloan

EGK-k urtean zehar ematen diren nazioarteko egunez baliatzen da bere mezua eta aldarrikapenak zabaltzeko. 2022. urtean egutegia osatzen jarraituko du eta data

esanguratsuetan dagokion manifestua eta komunikazio kanpaina eramango du aurrera.

Aurreko urteetan aurrera eramaten ziren nazioarteko egunez gain aurten, maiatzaren 8a Bekadunen eguna, ere kontuan hartuko da eta gai horren inguruko mezua zabaltzeko baliatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

2022. urtean zehar enpleguarekin zerikusia duten nazioarte egunak markatzea eta egun horietan EGKren manifestu edo diskurtsoa plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Nazioarteko egunen garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn partaidetza bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.
- EGKn parte-hartzen duten elkarteak data hauetan publikatutako manifestu eta diskurtsoetan inplikatu eta hauen atxikimenduak aurrera eraman indarrak batzeko.

Garapena

EKINTZAK:

Emakume Eta Gizonen Arteko Soldata Berdintasunaren Aldeko Europako Egunean (otsailaren 22an). Emakumeen prekaritatea eta errealitatea adieraziko duen manifestua gaurkotu, atxikimenduak lortu eta honen zabalpena egin egun horretan.

Lan Osasunaren Nazioarteko Egunaren (apirilak 28) manifestua gaurkotu, atxikimenduak lortu eta honen zabalpena egin egun horretan.

Maiatzaren 1ean, Langilearen Egunean gazteriaren egoera prekarioa azaleratu eta EGKren diskurtsoa zabaldu.

Maiatzaren 8an, Bekadunen Egunean, EGKren diskurtsoa landu eta plazaratu.

Lan Egokiaren Egunean (urriak 7) manifestua eguneratu, atxikimenduak lortu eta plazaratu egun horretan.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako kanpainen difusio maila eta hedapena.
- Egindako kanpainen eta manifestuen atxikimenduak.
- Komunikabide eta gizarte eragileen zein gazteen atentzioa eman izana.
- Egun gehiago identifikatu izana.

2.4 Gazteak eta nekazaritza

EAEko gazteriaren egoera erreparatzerakoan, bigarren plano batean geratzen da bizitza hiriburuetatik at antolatuta duten gazteen egoera. EGK-k gazte hauen egoerara hurbiltzeko garrantzia sumatuz eta CRAFekin elkarlanean, gazte hauen bizimoduak, aukerak eta zailtasunak gizarteratzeko asmoz aurrera eramango du proiektu hau. Izan ere, lehen sektoreak duen garrantzia ere mahai gainean jarri nahi da, honetan diharduten pertsonen bizi kalitatearen alde egiten.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Gazte nekazarien egoera aztertzea eta mahai gainean jartzea, familia nekazaritzan zentratuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Landa eremuan diharduten gazteen iritzia erdigunean jartzea, hauei ikusgarritasuna

ematea eta administrazioei plazaratutako datuekin alderatzea.

- Gazteak landa eremuetan dituzten lan aukerak aztertzea (gazteei zuzendutako planak, politikak, baliabideak, laguntza ekonomikoak...)
- Genero-perspektiba batetik emakume eta gizonezkoen artean ematen diren ezberdintasunak antzematea.
- Egoera honetan aurkitzen diren gazteek haien egoerak partekatu ahal izateko espazio bat sortzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gazte nekazari eta abeltzainentzako zuzenduriko politika publikoak, planak eta proiektuak identifikatu eta aztertu.

Eragile ezberdinak identifikatu eta elkarlana sustatu, CRAFekin batera.

Nekazaritza, abeltzaintza eta arlo horietako esparruekin harremandutako gazteak identifikatu eta harremanetan jarri.

Zabalpena eta topaketa gauzatu.

Ondorioak jaso eta landu.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Aztertutako gaiaren sakontasuna.
- Parte-hartzaile kopurua eta hauek egindako ekarpenen sakontasuna.
- Partaidetza kuantitatiboa genero perspektibatik aztertuta.
- EGK-k gaiaren inguruan diskurtsoa eratzeko beharrezko irizpideak eskuratu izana.

2.5 Gazte Bermea

Zertan datza **Gazte Bermea**? Zeintzuk dira horretan parte hartzeko betekizunak? Zer eskaintzen du? Eraginkorra da gazteen lan merkaturatzea duina lortzeko bidean? EGK-k galdera hauei erantzuna bilatuko die, beste batzuen artean, **Gazte Bermea** bere osotasunean ezagutzeko eta Euskadiko gazteriari gehiago hurbiltzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazte bermearen inguruko azterketa egitea, gaiarekiko interesa piztea eta honen inguruko hausnarketan sakontzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **Gazte bermea**ren nondik norakoan aztertzea.
- **Emantzipa...zer?** lantaldean landu eta proposamenak egitea eta EGKren diskurtsoa eratzea.
- **Gazte bermea**ren inguruko informazioa biltzea gazteei helarazteko modu labur eta erakargarrian, sustatzeko.

Garapena

EKINTZAK:

Gazte Bermearen inguruko barne lanketa egin.

Gazte bermea landu duten beste eragileekin harremana egin.

Emantzipa...zer? Lantaldearekin batera honen lanketa egin.

Ateratako ondorioen zabalpena egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Gazteen eta eragile ezberdinen parte-hartzea eta interesa.
- Parte-hartzaile kopurua eta hauen ekarpenen aberastasuna.
- EGK-k **Gazte Bermea**ren inguruko diskurtsoa osatzeko irizpideak lortu izana.

2.6 Etxeko Langile gazteak

Gazte migratuek lan bat bilatzerako momentuan jasotzen dituzten aurreiritziak askotarikoak dira, honen ondorioz, gutxi balioetsitako lan esparruetan lan egitera behartuta ikusten dituzte haien buruak. Egoera honetan ere, sexuaren arabera ezberdintasunak ematen direlarik, emakumeen kasuan zaintza lanetan daude asko.

Prekaritatean murgilduta, ordutegi luzeekin, askotan ikusezin eta lan eskubideak murriztuta dituztelarik, beltzean lan egiten askotan...

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Lan merkatuan ezkutuan dauden emakume gazte etorkinen errealitatea mahai gainean jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Emakume migratuen lan egoerak aztertzea.
- Egoera gizarteratzea kalitatezko lan baldintzen alde eginez.
- Pertsona migratuen laneratzearen egoeraren inguruko EGKren diskurtsoa eratzea eta diskriminazio honen ondorioak agerian jartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gaian adituak diren pertsona eta elkarte ezberdinak identifikatu eta haiekin harremanetan jarri.

Egoera hauetan aurkitzen diren gazte migratuen identifikazioa eta kontaktua.

Egoera aztertu, eta aukerak eta zailtasunak antzeman.

Egoera gizarteratzeko jardunaldia egin.

Ondorioak ateratzea eta plazaratzea.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Parte-hartzaile kopurua eta gaian adierazitako interesa.
- Garatutako diskurtsoaren sakontasuna eta honen aberastasuna.

2.7 Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta Unibertsala eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta gazteak

Gazteek formakuntza maila altua izateak ez ditu kalitatezko enplegua eta bizitza duina bermatzen gaur egun, izan ere, prekarietatea gazteen lan merkatuaren isla da. 4.0 industriak lan merkatuan izandako etenaldiak hainbat lanposturen desagerpena ekarri du, eta lanpostu berriak sortu badira ere, etorkizunean baliteke formula ezberdinak

planteatu behar izatea.

Prekaritateak biztanleriaren dualtasuna eta desberdintasunak geroz eta gehiago izatea ere eragiten du. Horren aurrean berdintasuna sustatzeko asmoz planteatzen da Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta Unibertsala.

EGK-k errenta honek gazteriarengan edukiko lukeen eragina aztertuko du, egun existitzen diren beste errenta batzuekin ere alderatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta bere osotasunez aztertzea gazteriaren ikuspuntutik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteengan izango duen eragina aztertzea.
- Errenta honen alde positiboak eta negatiboak aztertzea.
- Gazteriak honen inguruan duen iritsia jasotzea eta aztertzea.
- EGKren diskurtsoa garatzea **Emantzipa..zer?** lantaldearekin batera.

Garapena

EKINTZAK:

Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta Unibertsalaren nondik norakoak aztertzea.

Gaian adituak diren pertsonekin harremana egin eta mantendu gaian sakondu aldera.

Gaia **Emantzipa..Zer?** lantaldearekin batera lantzea, diskurtsoa sortzeko.

Gai honen inguruan EGKren diskurtsoa sortzea eta gizarteratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Parte-hartzaile kopurua eta hauen interesak.
- Ateratzen diren diskurtsoen sakontasuna eta gaiaren lanketa kualitatiboa.
- Gai honekiko lorpenak eta ekarpenen aberastasuna.

2.8 Gazte ekintzaileak

Gazteek lan merkatuan bizi duten prekaritateak pil-pilean dagoen errealitate bat izaten jarraitzen du. Izan ere, lan merkatuko zailtasunak anitzak dira; lan kontratu bat lortu ahal izateko bete beharrezko baldintza altuak (esperientziaren eskakizunei lotuak); kalitatezkoa den lana lortzeko lan merkatuan dauden trabak eta lan merkatuan prekaritatea sustatzen duten egoera ezberdinak; lan partzialtasuna, aldibaterakotasuna, soldata baxuak, ordu estrak, gainkualifikazioa...

Egoera honen aurrean, gazteen ia erdiak, 2019an euren kabuz lan egiteko asmoa zuten, nahiz eta errealitatean bere kabuz lan egiten duten gazteen ehunekoa ez da %5era heltzen.

Zergatik ematen da hainbesteko aldea euren kabuz lan egiteko asmoa daukaten gazteen eta benetan hala egiten dutenen artean?

Proiektu hau gazte hauen errealitatea ezagutzeko eta gizarteratzeko asmoarekin burutuko da, dituzten aukerak eta beharrak, egiten dituzten eskaerak... Baita administrazio ezberdinetatik eskaintzen diren laguntza ezberdinak ezagutzeko ere.

Beraz proiektu hau kalitatezko ekintzailetza bat sustatzeko eman beharreko pausuen ideiak jasotzeko aukera emango du. Ekintzailetza askotan enplegua lortzeko formula bezala azaltzen bada ere, hau kalitatezkoa izan behar da, informazio guztia argi adierazi eta benetako aukerak eskaini.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Ekintzaile diren eta euren kabuz lan egiteko bidea hartzen duten gazteen egoera aztertzea.

HELBURU ZEHATZAK:
- Ekintzailetza sustatzeko eta honetan laguntzeko gazteei zuzendutako administrazioen

laguntzak aztertzea.

- EGKn gaiaren inguruko diskurtsoa eratzea gazteei gaiarekiko aholkularitza eskaini ahal izateko.

Garapena

EKINTZAK:

Administrazioek garatutako ekintzailetzarako eta auto-enplegurako aukera ezberdinak ezagutzea.

Gazte ekintzaileak eta prozesuan dauden zein auto-enplegurako asmoa daukaten gazteak identifikatzea eta kontaktua egitea haiekin.

Topaketaren prestakuntza (edukia prestatu, parte hartzaileak, lekua, komunikabideak...)

Topaketa aurrera eraman.

Topaketaren ondorioak jaso.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Aztertutako gaiaren sakontasuna.
- Parte-hartzaile kopurua eta hauek egindako ekarpenen sakontasuna.
- Partaidetza kuantitatiboa genero perspektibatik aztertuta.
- EGK-k gaiaren inguruan diskurtsoa eratzeko beharrezko irizpideak eskuratu izana.

2.9 Eguneroko lana

EGKn arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko bideratuko da atal hau. Bilerak, egoitzaren kudeaketarako lanak, aholkularitza, proiektuen planifikazioa eta justifikazioa besteak beste izango dira honen baitan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatzea beste lan eremuekin elkarlana sustatzea eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Komunikabideen eskaerei erantzuna ematea.
- Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egitea.
- Beste lan arloen lanaren kontrastea egitea.
- Lan taldearen formazioan parte hartzea.
- Lan-arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egitea.
- Batzorde Iraunkorrarekin eta lankideekin harremana eta lankidetza izatea.
- Memorien eta Plangintzen kudeaketa eta ebaluazioa egitea.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte-hartzea.
- Bulego ezberdinen mantenua sustatzeko kudeaketak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Komunikabideekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.

Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.

Beste lan arloen lanaren kontrastea egin.

Egutegiak hala eskatzen duenean ekintza desberdinak burutu.

Aholkularitza egin.

2022. urteko plangintzak eta memoriak prestatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Barne komunikazioa aproposa izatea eta kalitateko kontrasteak egitea.
- EGKren eguneroko lana eta funtzionamendu egokia bermatzea.
- EGKren kanpo komunikazioa erraztea.
- Bileren eraginkortasuna.

3. HEZKUNTZA

Ikasle gazteak erdigunean jartzen dituen eta hauen garapenerako ezinbesteko diren espazioak zein tresnak sortuko dituen lan-arloa da hezkuntza. Honen baitan, bi atal bereizten dira: hezkuntza ez-formala eta hezkuntza formala.

Hezkuntza formalean, gazte elkartegintza eta ikasle ordezkaritzako egituren baitan ikasleen beharrak, kezkak edo proposamenak jasotzen dira. Ondoren, errealitatearen azterketarekin batera, gai desberdinak landu eta aldarrikapenak zein hobetzeko proposamenak adosten dira elkarren arteko dinamikak eta hausnarketarako guneak garatuz. Gazteen ahotsa entzuna izan dadin eta ahots honek espazio bat izateko asmoz egiten da lan eta administrazioaren eta ikasleen arteko zubi-lana burutzen da lan-arloaren baitan dagoen atal honetan.

Hezkuntza ez-formala, hezkuntza formaleko sistematik kanpo aurkitzen diren arututako ikaskuntza-prozesuek osatzen dute eta lana ezaugarri askotako, eta balio desberdinak biltzen dituzten agenteen artean eramaten da aurrera. EAEko elkarte eta eragile desberdinen elkarlanerako sarearen bitartez eta astialdi munduan lan egiten duten kideen koordinazio eta harreman jarraikorrarekin, EGK-k astialdiaren garapena bultzatzea du helburu. Astialdi hezitzaileko elkartegintza indartu, balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatu eta horretarako lan eginez, sektorea balioan jartzetik ekimenak sustatzeraino.

Premia edo beharrak identifikatu eta hauek bideratzen saiatzea da beraz eginkizuna honetan- Hezkuntza panorama osoa hartuz, ikasleak hezkuntza komunitatearen baitan kokatuz, ikuspegiak beste agente batzuekin partekatuz eta esparruaren ikusgarritasunean edo balioan fokua jarriz. Jarraian xehetasun gehiago.

3.1 HEZKUNTZA FORMALA

3.1.1 Hezkuntza Foroa

Hezkuntza formalaren baitan, EGKren diskurtsoa eta proposamen maila osatzen lagunduko duten ikasle elkarte, kontseiluetako ordezkariekin eta maila indibidualean parte hartzen duten gazteekin partekatzen den eztabaidarako gunea da foro hau. Ikasleekin batera, hezkuntza arloko gaiak eztabaidatu eta elkarren arteko adostasunetan oinarritutako proposamenak lantzeaz gain, hezkuntzaren gaineko proiektuak zein dinamika zehatzak proposatu eta aurrera eraman nahi dira.

Hezkuntza lan-arlotik talde desberdinekin harremana eta elkarlana sortzen da, elkargune horren bitartez hezkuntza arloko administrazioari proposamen zehatzak helaraztea da helburua gazteen eta konkretuki ikasleen egoeraren berri emateko eta dauden neurri zein araudiei ekarpenak egiteko, besteak beste, momentu honetan esku artean dagoen Hezkuntza Legeari. Kasu honetan, aurreko urtean hasitako ibilbidea berriro ere hartuko da eta abiapuntua proposamenak gainditzetik EGKren baitan sortutako ekarpenak atxikimendu eta integrazio maila bat Legearen baitan har dezatela da. Ibilbide honen irudikapenean, ikasleen eskubide eta ahotsak partekatzen jarraitzea izango da asmo nagusienetako bat, ikaslea subjektu gisa eta hezkuntza komunitateko agente inplikatu gisa hartua izan dadin.

Honetaz aparte, aholkularitza jarraitua ere bideratzen da hezkuntzaren aspektu formaletik, ikasleek haien zalantza edo arduretatik bideratzen dituzten galderak EGKren partetik erantzun bat izan dezaten ahalbidetuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

Ikasleen kezka eta beharrak proiektu zehatzen bitartez lantzea, gerora hezkuntza formaleko instituzio eta arduradunei lan horretan jasotako ondorioak helarazi eta proposamen zehatzak bideratzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bitartekari lana burutzea.
- Hezkuntza formaleko elkarte eta eragileekin hezkuntza eztabaida guneak koordinatzea.
- Ikasleen arazoak eta kezkak jaso eta foroaren eztabaiden bitartez proposamen eta ekimenak bideratzea.
- Aurreko urtean emandako pausoetatik abiatuta Hezkuntza Legearen baitako eginkizunak bideratzea eta hauek eskatzen duten lan zein bileretan parte hartzea.
- Foroak egonkortasun batekin eta kidego konkretu batekin lan egiten duela bermatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Hezkuntza Foroa koordinatu eta bertako beharrei erantzun.

Ikasleen arazoak eta kezkak jaso eta foroaren eztabaiden bitartez proposamen eta ekimenak bideratu.

Foroaren egonkortasuna lortzeari begirako lanak egin.

Hezkuntza Legearen gaineko gazte eta ikasleen proposamenak eta ahotsa helarazi.

Hezkuntza arloko eragileekin eta instituzioekin harremanak sendotu eta berriak garatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Kidegoaren proaktibitatea.
- Proposatutako proiektuen burutzea eta proposamenen zenbatekoa.
- Foroaren zabalpena.
- Emandako hausnarketetatik egindako ekarpenen onarpen eta txertatzea.
- Aldarrikapen eta diskurtsoen eragina (jendarte eta komunikabidetan).
- Administrazioarekin izandako bilerak.

3.1.2 Euskadiko Eskola Kontseilua

euskadiko eskola kontseilua consejo escolar de euskadi

Aurten ere, EGK-k, **Euskadiko Eskola Kontseiluan**, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo gorenean, parte hartuko du. Bertan, EAE mailan irakaskuntzan garatzen den arau eta irakaskuntzaren egoeraren gaineko txosten orokorrei ekarpenak egiten zaizkio betiere gazteen iritzia kontuan izanda.
Honakoa, ikasleen ahotsa txertatzeko partaidetza espazio bihurtzea nahi da, non espazioa emango zaion ikasleari eta hartzaile izatetik, protagonista izatera pasako den.

Hezkuntza komunitateko agente gisa, ikasleak eskura dituen partaidetza organismo eta aukerak ezagutzea izango da urteko erronka, non lokaletik abiatuta eta maila desberdinetaraino nahi diren irudikatu intzidentziarako kanal desberdinak. Horretarako, EGKtik **Eskola Kontseiluaren** ezagutza eta ekarpen maila handitzen joango da, esaterako komisio desberdinetan parte hartuz, hala nola, egun ere EGK-k parte hartzen duen **Hizkuntza Komisioa** kasu.

Honez gain, ikasleen partaidetzari buruzko hausnarketa bat abiatzea ere da plana. Honetan, lehen pertsonan eta ahots propioz ikasleen behar, iritzi eta premiak jaso nahi dira hauen partaidetza erronkei erreparatzeko asmoz.

Bukatzeko, urteroko bezala Osoko Bilkurak deitzen diren espazio edo erabakiguneetan hartuko da parte, non EGK-k gazte errealitatetik bideratzen dituen bozka eta planteamenduekiko posizio desberdinak. Hauek, hain zuzen ere, EAEko hezkuntzaren norabidean ekarpenak egiteko balio dute eta proposamen konkretuak txertatu eta bozkatzearen bitartez egiten dira, non hezkuntza komunitate osoaren jardun eta ekarpena bilatu nahi den geroago ekarpen horiek administrazioak aintzat hartzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Eskola Kontseiluko bileretan parte hartzea.

HELBURU ZEHATZA:

- **Eskola Kontseilu**ko eztabaida eta dokumentuei ekarpenak egitea gazteen ahotsa helaraziz.

Garapena

EKINTZAK:

Euskadiko Eskola Kontseiluko deialdietan eta bileretan parte hartu eta jasotako dokumentuen ekarpenak burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

- Bileretan parte hartu izana.
- Egindako ekarpen kopurua.

3.1.3 "GAZTE gara GAZTE" Gazte solasaldiak



Aurreko urteetan identifikatutako ikasle eta gazte eragile zein elkarteekin harremana baliatu eta aurten proposamen berritua egin nahi da proiektu honen baitan, izan ere, partaidetza moduak aldatzen doazen heinean, EGKri ere bidean berritzea eta proposamen berriak egitea dagokio. Horretarako tresna, batik bat Hezkuntza Foroa bera ere izango da, honakoa baliatuko delarik informazio iturri gisa.

Gazteen arteko solasaldi formatukoa izango den eta ikus-entzunezkoan garatuko den espazio bat lortu nahi da ikasleekin aurten. Bertan, hauen interes eta inkietudezko gaietatik abiatu eta agendan zein egunerokoan aurkitzen diren gaurkotasuneko gaiei erantzuna emanez.

Sarritan, komunikabideetan, espazio formaletan edota erabakiguneetan ez dira ikasleak beraien iritziak ematen ikusten. Proiektuak hartuko duen formak, proposamen konkretuak eta iritzi jasotze desberdinak mahai gaineratzeari erantzungo dio eta hori ahalbidetuko du, gizartean aurretik ikasleentzako ohikoak ez diren espazioak hartzeko ideia, hain zuzen ere.

Tertulia formatuko proposamen honek, elkarrekintzarako gune bat sortzeaz gain, ikasleen eskakizun eta egoerekiko bozgorailu funtzio handiagoa hartuko du, besteak beste honako gai hauek mahai gaineratuko direlarik, abiapuntuko proposamen gisa:

- Ikasleen eskubide eta beharrak: ikasteko baldintza material eta ez materialak...

- Ikasleen osasun mentala: momentuko egoera pandemiaren eraginez.

- Ikasleek hezkuntzan dituzten partaidetzarako premiak: erabakiguneak, konpromisoak...

- Berdintasuna ikasle ikuspegi batetik abiatuta: ikasketetan sarbidea, desorekak...

- Euskara hezkuntzan: erronkak eta identifikatutako hutsuneak...

Askotarikoak dira landu nahi diren gaiak proposamen berri honen baitan eta honek kutsu erakargarria hartzea nahi da, ibilbide bat izan dezan eta ikasle zein gazteengana iristea lor dadin. Honekin batera, hauen eskaera eta beharrak zabaltzen eta EGKren diskurtsoa handitzen jarri nahi da fokua, aberastasuna eta gaurkotasuna ekarriz gaur egungo ikasleen ikuspegi batetik.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Ikasleen ahotsak eta errealitateak hedapena izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ikasleen partaidetza espazioak handitzea eta eraginkotzea.
- Ikasleak gai zein problematika desberdinen gainean hausnarketa egiteko kapaz direla balioestea.
- EGKren diskurtsoa ikasleek ahots propioz osatzea eta hau zabaltzeko erreminta bat izatea.
- Proposamenak egiteko forma berrituak mahai-gaineratzea.
- Gaurkotasuneko gaiei espazio eta tarte bat eskaintzea.

Garapena

EKINTZAK:

Solasaldiak prestatu eta plangintzatu.

Parte-hartzaileen identifikazio lana burutu.

Bitartekoen prestaketa egin eta kontu teknikoen kudeaketa burutu.

Solasaldiak grabatu eta zabaldu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Parte hartzen duten ikasle kopurua.
- Garatutako eta landutako gaien sakontasun maila.
- Ikus-entzunezkoaren garapena.
- Solasaldien irisgarritasun maila.

3.1.4 Hezkuntza eragileak

Hezkuntza, EGK-ko lan-arlo bat den heinean, eremu honetan mugitzen da naturalki lan egiten. Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana mantentzea egunerokoan presente dago beraz. Honekin batera, EGK ezagutzera emateko modu bat ere da harreman sare hau, arloko agente ezberdinen artean elkarlana eman dadin batez ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana sortzea eta EGK hezkuntza esparruan ezagutzera ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Harreman berriak garatu hezkuntza komunitateko kidego eta eragile desberdinekin, horretarako dauden jardunaldi eta EGK gonbidatutako ekintza desberdinetan parte hartuz.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileretan eta topalekuetan parte hartu izana.
- Egindako harreman kopurua.

3.2 HEZKUNTZA EZ-FORMALA

3.2.1 Astialdiko ekintzen jarraipena eta zabalpena

Urtero egiten den bezala, EGKtik akonpainamendua eta difusioa eman nahi zaie arlo honetan dabiltzan astialdiko pertsonei, bereziki edo modu berezituago batean gazteak diren horiei.

Sektorean egun existitzen diren eta esku artean dauden erronkez gain, esaterako, Astialdiko Lehen Euskal Estrategiaren diseinu eta egikaritzea, astialdiko talde, eragile eta ekintzei eman nahi zaie jarraipen eta zabalpen berezia. Horretarako, elkarteekin akonpainamendu eta aholkularitza etengabean jardungo da eta horrekin harreman-sare indartsu eta eraginkor bat izatea lortu nahi da.

EAEko elkarteekin harremana indartu eta komunikazio kanalak osasuntsu mantentzea izango da erronka nagusienetako bat urte honetan, betiere sektoreko profesional eta taldeei haien espazioa eta ahotsa zein protagonismoa emateko asmoz. Elkarte bakoitzaren unean uneko diagnosi eta argazki berritu bat izatea garrantzitsua izango da: nola dauden elkartegintza mailan, talde-osasun aldetik nola aurkitzen diren, zein proposamen eta erronka dituzten esku artean eta bereziki zertan lagundu ahal zaien EGKtik, besteak beste.

Zentzu honetan, zubi-lan integral bat egingo duen tresna izan nahi du EGK-k eskaerak jaso eta erantzuten saiatuko den bitartekari funtzioa izango duena. Talde desberdinen ikuspegi zabaletik abiatuta, eta urteetan zehar garatutako diskurtsoa aintzat hartuz, EGK-k arloaren edo sektorearen balioeste eta zilegitze bat agendan jartzeko funtzioa ere izango du, astialdian gazteengandik eta gazteentzako lan egiten den heinean, badagoelako hor zer aldarrikatu eta baita hor zein proposamen mahai gaineratu ere.

Aurreko urteetako pausoei jarraiki, pandemiak eragindako behar eta ondorioak bizi dira sektore

honetan egun ere eta horri erantzun bat eman beharra dago, taldeen eskakizunetatik eta EGKren bitartez. Gaur-gaurkoz, oraindik gizartean dagoen eta COVID-19ak utzitako egoerak, astialdiko eguneroko lana momentu batetik bestera baldintzatu eta aldatzen joan da urte guzti hauetan zehar eta horri erreparatuz, adi egon behar da EGK beharrak sortzen direnean erantzuteko prest egoteko: bitartekaritza kanalak zabaldu, beharrezkoa denean taldeei laguntza eskaini... Zentzu horretan, administrazioekin harremana egiteak ere garrantzia hartuko du, taldeen beharrei erantzuna ematea eraginkortze aldera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi hezkuntzari eta honetan lan egiten duten eragileei aintzatespena, balioa eta ikusgarritasuna ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi hezkuntzako taldeei aholkularitza-zerbitzua eskaintzea, hala eskatzen dutenean.
- Astialdi hezkuntzaren inguruan sortzen diren proiektuak eta eztabaidak koordinatzea: kasu honetan, esku artean dagoen Astialdiko Lehen Euskal Estrategiaren kudeaketa.
- Taldeen proposamenak eta aldarrikapenak administrazio desberdinei helaraztea eta honek eskatzen dituen eguneroko kudeaketak egitea (deialdiak, aktak...)
- Astialdi hezkuntzako taldeen egoera, hobekuntza eta eraginkortasuna etengabe eta modu jarraitu batean ebaluatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Astialdiko Lehen Euskal Estrategiaren jarraipena egin
- Ekintzen eta ikastaroen hedapena burutu (medioak, sare sozialak...)
- Taldeen aholkularitza eta akonpainamendua burutu
- Taldeen osasun egoera neurtu eta ikasturtean zehar balorazio desberdinak egin

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Taldeen egoeraren ezagutza maila.
- Astialdiko Lehen Euskal Estrategian ematen den hausnarketa eta ekarpen maila.
- Behar eta premiei erantzuteko jarritako helburuak betetzea.
- Elkarte-administrazioaren arteko zubi lanaren gauzapena eta honen emaitzak

3.2.2 Boluntariotzaren lanketa

Gazte boluntarioen behar eta hauen lanaren balioestean berresteko proiektua da honakoa, baita hauen egoera ezagutzera emateko eta hobetzeko tresna ere. Boluntario gazteen lana eta hauek gizartean duten balio eta inplikazioa zabaldu nahi da EGKtik, beste behin ere zentzu zabalenean oihartzuna har dezan.

Honekin, gazte boluntarioen elkarrizketa desberdinak mahai gaineratu nahi dira aurten: lehen pertsonan eta zuzenean kontatu dezaten nola bizi duten pandemia egoeraz geroztik boluntario

gazte izatearen arloa. Zentzu horretan, beste gazte batzuk boluntario izatera begira hauen aldetik aspektu positibo edo indarguneak zabaltzea ere hartuko da ardatz gisa, eskaintzen dien guztia identifikatu eta kontatzearen bitartez.

EAEn zehar, hainbat eta hainbat dira bertan bizi eta boluntario gisa jarduten duten gazteak. Aurpegia eta ahotsa jarri nahi zaie eta bizipen bat izatetik haratago, beste gazte belaunaldietara gerturatu ere, hau zein garrantzitsua den transmititze aldera. Gazte boluntario baten funtzioak eta zein beharrezkoak diren egungo gizartean irudikatzeko zein sozializatzeko tresna bat izango da proiektu hau.

Bestalde, BOLUNTA Bizkaiko Boluntariotza agentziarekin, BATEKIN Arabako Boluntariotza agentziarekin eta GIZALDE Gipuzkoako Boluntariotza agentziarekin elkarlanean arituko da EGK. Hauekin, honezkero ere egiten den bezala, Bizkaian zehar ikastetxe desberdinen bitartez boluntariotzaren eta EGKren hurbilpen bat emango zaie ikasleei: zuzena eta gertukoa. Izan ere, lanketa batzuen bitartez, eta ikasleekin zuzenean solastuz, errealitate hau haien begietaraino gerturatuko da, gizarte inplikazioak duen garrantzia eta ekarpena azpimarratuz eta hau handitu eta hedatzea lortzeari begira. Horretarako, urtean zehar hiru agentziak bidelagun izanik identifikatuko dira ikastetxe eta zentro desberdinak non hauekin batera lan egingo den.

Gainera, urtero legez abenduak 5a Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna dela probestuz, aldarrikapen batzuk mahai gaineratzeko eta gazteen presentzia boluntariotzan ikusarazteko kanpaina burutuko da aurten ere EGK-tik. Aurretik ere egin izan den bezala, ospakizunetik haratagoko eguna dela honakoa sinesten du EGK-k balioan jarri eta baldintza egokien inguruan hitz egitekoa, gazte boluntarioen premia eta beharrak nola ase pentsatzekoa.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazte boluntarioen lanari ikusgarritasuna ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Urtean zehar egiten diren ekintzak balioestea.
- Gazte boluntarioek urtean zehar garatzen dituzten ekintzak balioestea.
- Existitzen diren EAEko lurralde desberdinetako boluntariotza agentziekin (Bolunta, Batekin, Gizalde) harremana sendotzea.
- Gazte boluntario bezala identifikatzen diren erronkak identifikatu eta hauen plazaratzea.
- Harremanen mapa osagarritzea eta boluntario gazteen sareak sendotzea.
- Boluntariotzaren Nazioarteko Egunean gazte ikuspegia txertatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Boluntariotza munduarekin loturadun agenteak identifikatu eta harremanak garatzea.

Abenduaren 5eko astean: Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren haritik, boluntario gazteen testigantzen lanketa egitea.
Boluntario gazteen inguruko diskurtsoa garatzea eta plazaratzea.

Boluntariotzarako euskal agentziekin elkarlana egonkortzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako harremanak.
- Ezagutzera emandako testigantzak eta diskurtsoa.
- Abenduaren 5aren bueltan egindako lanketaren irisgarritasuna.
- Boluntariotza agentziekin garatutako harremana.
- Bisitatutako ikastetxe kopurua.
- EGK ezagutzera emateko eta aurkezteko aukera kopurua.

3.2.3 Hezkidetzaren lanketa

Proiektu hau Berdintasuna lan-arloarekin batera koordinatuko da, plangintzaren 7.6 Hezkidetzaren lanketa puntuan azalduko da.

3.2.4 Entzun Gaitezen

Proiektu hau Bakea lan-arloarekin batera koordinatuko da, plangintzaren 5.6 Entzun Gaitezen puntuan azalduko da.

3.3 HEZKUNTZA: OROKORRA

3.3.1 Hezkuntzako Nazioarteko Egunak

Proiektu hau, egun zehatzak eta hauen esanahia balioan jartzean datza.

Honakoak dira hezkuntza lan-arlotik momentuz identifikatuta eta agendan markatuta dauden egun zehatzak:

- Azaroak 17: Ikasleen Nazioarteko Eguna.

- Abenduak 3: Aniztasun Funtzionalaren eta Euskararen Eguna.

- Abenduak 5: Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna.

Hauetan, lanketa berezitu bat egingo da eta tarte bat eskainiko zaie, bai barne mailan eta baita kalera begira edota publikoki ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Agendan adierazitako nazioarteko egunei buruz hezkuntzaren arloan dagoen diskurtsoa

plazaratzea eta zabaltzea.

HELBURU ZEHATZA:

- Nazioarteko Egunen garrantzia gizarteratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Hezkuntzako data garrantzitsuetan baliatzeko diskurtsoa sortu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Irismen maila.
- Gazteen inplikazioa egun hauetako diskurtsoaren garapenean.
- Daten sozializazioak izandako oihartzuna eta erantzuna.

3.3.2 Administrazioekin koordinatu

Eguneroko gaiek eskatuta administrazioekin koordinazio lanak burutu: lan-saio eta bilerak, telefono deiak... Hezkuntza lan-arloari dagokionez, Eusko Jaurlaritza eta EAEko aldundiak izango dira hartzaileak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Administrazioekin koordinazio egoki eta egonkorra bideratu.

Garapena

EKINTZAK:

Eusko Jaurlaritza eta Aldundiekin batera koordinazio lanak burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urtean zehar informazio trukaketa burutzea.
- Elkarren arteko harremanaren ondoriozko koordinazio hobetzea.

3.3.3 Egunerokotasuna

Lan-arlo bakoitzaren lan zehatzetatik bereiz, teknikariek egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dute: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, mezu elektronikoak ... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu ...

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

Garapena

EKINTZAK:

Egunerokotasuneko lanak

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hobekuntzetarako proposamenak jaso.

4. PARTAIDETZA

Partaidetza lan-arloa 2013ko uztailean sortu zen, EGK-ko Batzar Orokorrean onartutako "Indartzen" plan estrategikoan agindutakoa beteta.

EGK gazteriaren eta administrazio publikoen arteko zubia izaki, partaidetza lan-arloaren helburua politika publikoen lanketan gazteen partaidetza sustatzea da. Horretarako, planteatutako ekimenen bitartez partaidetza modu praktikoan sustatzeaz gain, gazteriaren partaidetzaren errealitatea jaso, horren gaineko hausnarketa egin eta hobekuntzak proposatuko dira.

Arlo honek lan teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu; beraz, lana bulegotik kanpo egingo da askotan.

4.1 Aholkularitza

Aholkularitza zerbitzuaren mantentzea, partaidetza teknikariaren eguneroko lanen artean dago; gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

Aldi berean, garrantzitsua da, ahal den heinean, dinamika, ekitaldi eta sare ezberdinetan parte hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko. Horrez gain, pandemiaren egoera hoberantz doan heinean, aholkularitza zerbitzuaren sendotzea espero da eta horrekin batera, gazteria elkarte zein norbanakoekin harremanak sendotzeko mekanismo gisa baliatu nahi da zerbitzua.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Sare ezberdinetan parte hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko.
- Elkarteen kezkak hurbiletik ezagutu eta elkarteko kideekin batera, konponbideak bilatu eta aurkitzen laguntzea.
- Pandemiaz geroztik elkarteen mobilizazio eta dinamismo puntua gertutik ezagutzea.

Garapena

EKINTZAK:

Aholkulari lana.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ebaluazio irizpide nagusiak egindako aholkularitza zerbitzuen kopurua eta berauen edukia izango dira. EGKren parte ez diren elkarte eta eragileekin egindako kontaktua eta harreman horien bilakaera ere aztertuko da.

- Aholkularitza zerbitzuaren erabileraren zenbaketa eta datuen kontabilizazioari ekingo zaio, aurreko pandemiaren eraginaren ostean elkarteen zein gazteen mobilizazio eta dinamismoa ikusteko.

4.2 Gobernu Irekirako Aliantza (Open Government Partnership)

Gobernu Irekirako Aliantza nazioarteko erakunde bat da. Bere xede nagusia, herritarrentzako gobernu irekiago eta arduratsuagoak lortzea da. Eusko Jaurlaritzak, helburu hauetan gizarterako abantailak lortzeko, konpromiso batzuk martxan jarri zituen. Horien artean, "Open Eskola" edo Eskola Irekia dago, zeinean EGK-k, gazte erakunde bezala, parte hartzeko aukera izango duena.

Open Eskola deituriko erronkaren barnean, herritartasunaren gaitasun eta formakuntza demokratikoa bultzatzen dituzten mekanismo, erreminta eta eredu demokratikoak bultzatzea bilatzen da. Xede nagusi bezala, gobernantza publikoan oinarrituriko eredu berrirako beharrezkoak diren ezagutza eta gaitasunak sortzea izango da, gazteriaren eta gizarte orokorraren partaidetza ziurtasun guztiekin erakundeetan txertatzeko.

Herritarren aldetik jasotako eskaerei erantzuteko, garrantzitsua da "eskola irekia" bezalako espazio berria erabiltzea eta optimizatzea. Gune horretan, datozen urteetan abian jarri beharko diren lan-konpromisoak identifikatu beharko dira, herritartasun aktiboa, parte-hartzailea eta ahaldundua lortzeko, betiere euskal gazteriaren ikuspuntutik ikusita.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Gobernu Irekiko Aliantzan EGKren eta euskal gazteriaren ikuspegia gehitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Open Eskola egitasmoaren ekintza planaren diseinuan ekarpenak egitea eta parte hartzea.
- Eusko Jaurlaritzako OGPko bileretan parte hartzea, euskal gazteriaren kezka eta proposamenak kontuan izanda.
- EGKren presentzia foro ezberdinetan zabaltzea eta ezagutaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Open Eskola konpromisoak ematen dituen ekimenen berrikusteko bileretan parte hartzea.

Kronograma:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Open Eskola eta oro har OGP-k bultzatutako ekintza planak dakartzan egitasmoen ondorioak aztertu beharko dira, euskal gazteriaren proposamenak bertan txertatzen diren ikusteko.

4.3 Partaidetza Plana

Partaidetza arlotik 2022. urtea probestu nahi da benetan Partaidetza lan-arloan EGK-k hurrengo urteetan izango duen ildo estrategia finkatzen jarraitzea eta sortzen ari diren erronken aurrean partaidetza sustatzeko plan sendo bat egikaritzea.

Norabide horretan plan horrek oso kontuan izan beharko ditu boluntariotza eta partaidetza arloan ematen ari diren aldaketak (pandemiaren eragina gazterian, digitalizazioa, parte-hartzeko modu edo metodologia berriak...). Onartuko den Gazteria Lege berriaren oinarriak kontuan izaki egin beharko da azterketa lan guzti hau.

2021. urtean lan bibliografikoa martxan jarri ondoren, Partaidetza teknikariaren lana izango da, planaren definizioa, erredakzioa eta dinamizazioa, EGKren parte diren elkarte eta foro desberdinak etorkizunerako estrategia honetan parte har dezaten.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k egungo gazteen behar eta ohituretara moldatuko den partaidetza estrategia bat egikaritzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k parte-hartzeko zenbait molde berri bereak egitea.
- EGKren barneko partaidetzan sakontzeko tresna bat sortzea.
- EGKn partaidetza are gehiago sustatzeko marko bat eratzea.
- Partaidetza modu inklusibo eta parekidean sustatzeko neurriak ezartzen jarraitzea.

Garapena

Partaidetza planaren garapena fase ezberdinetan martxan jarriko da urtean zehar:

Lehenik eta behin, informazio fasean prozesu guztiaren ibilbidearen xehetasunak eta joerak azaltzeko aukera izango da. Prozesu horretan, batzorde iraunkorrarekin eta EGK-ko teknikariekin batera definituko dira planaren oinarriak.

Bigarren fasea, martxotik aurrera abiatuko dena, deliberazio fasea deiturikoa izango da. Horren bitartez, EGK-ko kide zein elkarte guztiek aukera izango dute iritzia botatzeko, pentsatzeko eta iradokizunak eztabaidatu eta planari gehitzeko. Horren ondorioz, elkarteen partaidetza deitzea eta hura sustatzea espero da, EGKrako partaidetza plan zabala eta argia bultzatzeko helburuarekin.

Ondoren, deboluzio faseari ekingo zaio. Fase honen bitartez, EGK-ko deliberazio fasean parte hartu duten elkarte eta norbanako guztien proposamenak eta iritziak kontuan hartuko dira eta planaren lehenengo zirriborro baten deboluzioa eta kontrastea egitea espero da. Honekin batera, modifikazioak egiteko tartea zabalduko da, eztabaida irekitzeko aukera irekiz.

Azkenik, erredakzio fasea izango da. Honekin batera, EGKren I. Partaidetza planaren erredakzioa eta azkeneko moldaketak egiteko tartea zabalduko da. Bertan, partaidetza teknikariaren lana izango da proposamen guztien zehaztea eta argitzea, prozesu osoan zehar egindako ekarpenetan oinarrituz.

Urte amaierarako, planaren zabalpen eta argitaratze publikoa bultzatzea saiatuko da Partaidetza lan arlotik, jendartean EGK ezagutarazteko eta egindako lanaren laburpena egiteko. Horren ondorioz, planaren ekimen planak bultzatzeari ekingo zaio lan arlotik.

Urtea amaitu baino lehen, ebaluaziorako tartea zabaltzea espero da. Partaide guztien iritzia jaso eta datu guztiak biltzeko.

EKINTZAK:

Informazio fasea.

Deliberazio fasea eta elkarteekin bilerak.

Deboluzio fasea eta kontraste lanak partaideekin.

Erredakzio fasea, diseinuaren zehaztapena eta planaren onarpena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Aurtengoa, plana sortzeko urtea izanda, ebaluazio irizpideak ezarri ostean 2022. urtetik aurrera egongo da benetan planaren ebaluazio egoki bat egiteko aukera. Bertan ezarritako neurri eta proposamenen eraginkortasuna eta eragina ebaluatuz.

- Urtean zehar parte hartzen duten elkarte eta norbanakoen datuak bilduko dira, eta ekarpenen alderaketa tematikoa egitea espero da. Urteko azken zatian, prozesu osoan zehar emandako parte hartzearen maila ebaluatzea balioetsiko da, hurrengo urteetan gazteriaren mobilizazio graduaren tendentzia eraikitzeko.

4.4 Lantaldeen koordinazioa

EGKren oinarri berezitu diren lantaldeek bere jardunean dihardute. **Emantzipa...Zer?**, **Gaur8** edo Hezkuntza lan-arloko foro desberdinak tartean. Berauetan partaidetza handiagotzeko eta batez ere arlo bakoitzean existitzen diren hutsuneak betetzeko laguntza berezitua eskainiko da.

Lantaldearen koordinazioa mantendu eta sendotzeko, teknikari ezberdinekin batera bilerak egingo dira urte osoan zehar. Modu honetan, lan arloen artean sinergiak eta proiektu zabalagoak bultzatu daitezke.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko lan-arloetan partaidetza gehiago sustatzeko lan egitea eta bertako lantaldeak elikatzen jarraitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Beste lan-arloak indartzea.
- Lan-arloen arteko sinergiak bilatzea.
- EGK-ko elkarteak lantaldeetara erakartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Lan-arloekin koordinazio eta estrategia bilerak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lan-arlo zein lantalde bakoitzaren dinamismoa urte amaieran handitu den edo ez aztertu beharko da.

4.5 Material eta gelen lagapena

Material eta gelen mailegua EGK-k gazteei eta gazteen elkarteei eskaintzen dien zerbitzuetako bat da. EGK-ko gela eta materialak gazte elkarte eta norbanakoei irekita dago, eskatzen den edozein unetan erabiltzeko.

Material edota gelen eskaerak jasotzerakoan, ezarritako prozedura sistematizatua jarraitu behar

da materiala zein gela lagatzeko. Partaidetza teknikariaren lana da maileguen jarraipena egitea eta material eta gelen erabilera sustatzea, eta berori baliatu EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzeko.

Zentzu honetan, Komunikazio lan-arloarekin eta Administrazioarekin batera lan egiten da material eta gelen lagapen zerbitzuaren bitartez, gazteriaren partaidetza sustatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteei eta gazteen elkarteei beraien ekimenetarako material desberdinak eta espazioak eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzea.
- EGKren material eta bulegoen erabilera gazte elkarteen artean gero eta gehiago sustatzea.
- Bileretarako eta dinamiketarako erabiltzen diren gela eta materialen bitartez, gazteriaren partaidetza sustatzea eta dinamizatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Lagapen eskarien kudeaketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Utzitako material eta baliabideen egoeraren gaineko jarraipena egitea. Bestetik, urtean zehar egindako lagapen kopurua aurreko urteetakoekin alderatzea.

- Berriztatutako erregistro taularen bitartez, material eta gelen lagapen zerbitzuko datuak bildu eta hauen balorazioa egingo dira urtea amaitzerakoan.

4.6 EGK Sendotzen

EGKren barneko elkarteekiko harremana sendotu eta zaintzeko nahian, EGK-k lantzen dituen lan-arlo desberdinekin batera, gazteengan eragina duten zenbait aspekturen gaineko bilerak egitea da asmoa. Egitasmo honekin, EGK elkartetatik gertu mantentzen dela adierazteko ekimena martxan jarriko du urte osoan zehar. Modu honetan, elkarteek egiten duten dinamikak ezagutzeko eta EGK-tik egiten den lana azpimarratuz, etorkizunerako erlazioak hobetu eta hauek sendotuko dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko elkarteek dituzten beharrak eta kezkak kontuan hartzea eta hauen aurrean elkarteei laguntza integrala eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarteei arlo ezberdinetan ahalduntzen laguntzea.
- EGK-k egiten dituen egitasmoak ezagutaraztea.
- Partaidetza garatzeko formula berriak elkarteekin batera ezagutu eta martxan jartzen saiatu.
- Elkartegintzan diharduten duten gazteen mobilizazioa eta saretzea sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Elkarteekin estrategia bilerak egitea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako bilera kopurua eta elkartekideen erantzuna zehaztu eta aztertu beharko da.
- Programaren eboluzioa eta jasotako balorazioen ebaluazioa ere egin beharko da.

4.7 Euskadiko Gazteak Lankidetzan

Aurten ere, Partaidetza teknikariak Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartuko du eta beronen antolaketan lagunduko du.

Aurreikusten denez, programa aurrera ateratzeko hainbat bilera egingo dira urtean zehar. Partaidetza teknikariaren papera, beste GGKEkin batera, hautaketa batzordean parte hartzea izango da. Horren ondorioz, programan izena ematen duten partaideen profila ebaluatu eta bestelako kideekin hautaketa prozesuan parte hartuko da, batez ere, Barriako aterpetxean urtean zehar ematen diren hautaketa eta informazio jardunaldietan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteak Lankidetzan programak martxan jartzen dituen kooperazio proiektuetan parte hartuko duten gazteak hautatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesa agertu dutenekin harremanak finkatzea.
- Euskadiko gazteriaren partaidetza sustatzea.
- Lankidetzaren baloreak Euskadiko gazteen artean sustatzea.
- EGK gazte partaideei ezagutaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Lehen hautaketa egiteko jardunaldiak.

Hautaketa jardunaldiak Barriako aterpetxean.

Informazio jardunaldiak Barriako aterpetxean.

Ebaluazio jardunaldiak Barriako aterpetxean.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eusko Jaurlaritzak proposatutako irizpideen araberako balorazioa egingo da.
- Gazte partaideekin edukitako harremanen inguruko irakurketa egin beharko da.

4.8 Gazteriaren Foru Transpirenaikoa

Pirinioetako Lan Elkartea (PLE) osatzen duten lurraldeetako gobernuek, tartean Eusko Jaurlaritzak. Erasmus + programaren laguntzaz, **Gazteriaren Foru Transpirenaikoa** jarri dute martxan. Lurralde horietako gazteek elkar ezagutu eta bizi dituzten problematika eta bizibaldintzen inguruan hausnartzeko espazio bat sortzea da asmoa.

Foro horretan EAE, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Nouvelle-Aquitaine eta Okzitaniako gazteek hartuko dute parte. Beraien bizibaldintzak hobetu eta hizkuntza gutxitu edo mugikortasuna bezalako gaien aurrean proposamenak egiten saiatuko dira.

Aurten, Pirinioetako Lan Elkarteko EAEko lehendakaritza probestuz, **Gazteriaren Foru Transpirenaikoaren** topaketa egitea Euskadin garatzea egokitu da (Hondarribian, konkretuki). Horrezkero, aurreko urteko lantaldea berritu eta dinamikak martxan jartzeko aukera egongo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Pirinioetako Lan elkartea (PLE) osatzen duten lurraldeetako gazteek hausnarketarako espazioa izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Pirinioetako lurralde desberdinetako gazteek problematikak elkarbanatzea.
- Pirinioetako lurralde ezberdinetako gazteen arteko saretzea sustatzea.
- Aspektu komunen inguruan hausnartzea, konponbideak proposatzea eta berauek indartzea (euskara, mugikortasuna, enplegua, etxebizitza, antiarrazakeria...).
- Errealitate pirenaikoa gizarteratzea gazteen ikuspegitik.

Garapena

EKINTZAK:

EAEko gazte partaideen taldea berritzea eta martxan jartzea.

Taldearen egituraketa eta funtzionamendua zehaztu.

Ekimen desberdinak burutu.

Talde guztien **Gazteriaren Foru Transpirenaiko** orokorra ospatu Hondarribian.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Taldearen dinamismoa ebaluatuko da.
- Lantaldeen proposamenak eta ekimenak aurrera eramateko duten baliagarritasuna balioetsiko da.

4.9 Gizarte Aldaketarako Herritartasuna

Partaidetza teknikariak, Deustuko Unibertsitateko **Gizarte Aldaketarako Herritartasuna** irakasgaian kolaboratzeko aukera izango du Alboan elkarteko kideekin batera. Teknikariaren ardura irakasgaian zehar ikasleak laguntzea eta aholkatzea izango da. Honen bidez, herritarren partaidetzaren gaineko lanketak eta hausnarketak ikasleekin lantzeko espazio bat eraikiko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitateko ikasleak aholkatzea herritarren partaidetzaren gaineko eragin plan txiki bat diseinatzen, burutzen eta ebaluatzen.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.
- EGKren lana unibertsitatean ikusgarri egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Irakasgaian zehar, ikasle taldeekin zein irakaslearekin bildu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Proiektuaren ebaluazio irizpideak irakasgaian ezarrita daudenak izango dira. Bestetik proiektuaren balorazio orokor bat egingo da irakasle zein ikasleekin.

4.10 Egunerokoa

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbestekoak dituzte barneko nahiz kanpo koordinaziorako bilerak. Baita urtean zehar ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukera ere. Gainera, lan-arlo honen kasuan, bere zeharkakotasuna dela eta, EGK-ko gainerako lan-arloekin izan beharreko koordinazioa ia etengabea da, baita kanpoko elkarte, eragile eta administrazioekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko beste lan arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraikitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egin.
- Beste lan-arloei gazteen parte-hartzearekin lagundu.
- Urteko plangintza eta memoriak egin.
- Hedabideetan agertu hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartu.

Garapena

EKINTZAK:

Urteko plangintza prestatu.

Bilerak egitea.

Memoriak egitea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urte osoko plangintzaren jarraipena eta barne komunikazioa ebaluatuko da.

5. BAKEA



Bake eta bizikidetza lan-arloaren helburua gazteek bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko kulturan parte hartzeko eta bake kultura zabaltzeko estrategia garatzea da. Proiektu guztiek izango dute lotura honako hiru eremu hauetako batekin gutxienez: Giza Eskubideak, memoria eta bizikidetza.

Aurreko urteetan hasitako proiektu batzuek jarraipena izango dute (**Etikasi**, **Bake eta Bizikidetza lantaldea** eta **Guztiok Batera** dira horren adibide). Beste batzuk lehen aldiz landuko ditu bake eta bizikidetza lan-arloak, Euskadiko gazteek problematika desberdinei buruz dituzten hausnarketak eta eskaerak jasotzeko asmoarekin betiere.

2022eko helburu orokor bezala pandemia egoerara moldatzen jarraituz, gazteei ahotsa ematen jarraitzea da; Giza Eskubideei, memoriari, bizikidetzari eta berdintasun ezaren edo diskriminazioei buruz hitz egin eta lan egiteko espazioak sortuz.

Honetarako proiektu propioak eta gainerako lan-arlo batzuekin proiektu bateratuak egingo dira, gazteekin giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko hausnarketak eta lanketa eremuak garatuz.

5.1 Etikasi

Bidaia hezigarrien bidez gazteek etika eta giza eskubideei buruz hausnartzeko eta ikasteko programa da **Etikasi**. 2019an proiektu pilotua aurrera eraman zen, giza eskubideen urraketa sufritu duten Europako lurralde batzuetara bidaia hezigarriak eginez Auschwitz-era eta Ipar Irlandara Batxilergoko eta Lanbide Heziketako Erdi edo Goi Mailako zein Unibertsitateko ikasleei bideratua.

COVID-19-ak eragindako pandemia egoeraren ondorioz, proiektuaren diseinua aldatu eta egokitzea eskatu zuen 2021an Euskadira mugatuz bidaiak eta Lanbide Heziketako Erdi edo Goi Mailako zein Unibertsitateko ikasleei zuzendu zitzaien programa, betiere helburu berdinarekin.

2022an **Etikasi** programa pandemia egoerara moldatzen jarraituz, Unibertsitate zein Lanbide Heziketako ikasleei bakarrik bideratua izango da; aurten, ordea, Ipar Irlandara eta Pasaia Errenteriara egingo dira bidaiak Euskadin gertatutakoaren eta Ipar Irlandan gertatutakoaren gaineko gogoeta kritiko bat egiteko eta ondorioak atera ahal izateko. **Etikasi**ko helburua mantenduz, bidaietara joan aurretik ikasleek formakuntza jasoko dute, eta itzuli ostean ere ondorioak hausnartzeko saioa egingo dute.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Etikasi proiektua aurrera eramatea COVID-19aren aurkako neurriak kontuan hartuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Proiektuaren diseinua egokitzea.
- Bidaiak egiteko lekuak aukeratu eta bertan egiteko programa garatzea.
- Gazteen parte hartzea sustatzea.
- Formakuntza eta ebaluazioa antolatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Etikasiren diseinua pandemiaren baldintzetara egokitu.

Izen-emate deialdia ireki.

Hautatze prozesua aurrera eraman.

Bidaiaren aurreko formakuntza eman.

Bidaiak egin.

Bidaiaren osteko formakuntza eta itxiera egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Programa pilotuaren diseinuari aldaketak eta zuzenketak egitea.
- Pandemiaren egoera mantendu arren proiektua aurrera eramatea.
- Formakuntza etorkizunera begira egokitzea.
- Hurrengo urteetarako programa aurrera ateratzeko behar diren aldaketak egitea.

5.2 Entzun Gaitezen

Proiektu honen helburua jada anitza den euskal gizartearen eraikuntzan gazte guztien ahotsak entzutera emateko aukera bermatzea izan zen. Aurreko urteetan EGK-k **Ikus Gaitezen** proiektuaren ondorioetatik eratorritako proiektua da hau. Mahai-gaineratutako eremu bat hezkuntza izan zen: euskarak inklusioan duen papera eta hezkuntzan gertatzen den segregazioa.

Migrazio prozesu bat bizi duten gazteek, edota haien gurasoek bizi izandako migrazio prozesuaren ondorioz suertatzen zaizkien errealitateak ezagutarazteko espazioak sortzea eta

hauek entzutetik EGK-k diskurtsoa zabaldu eta zeharkako egitea.

Proiektu honetan espazio seguru eta goxoa izatea bermatu nahi da, eta bertan jatorri desberdinetako gazteek elkarrekin etorkizunera begira hartu beharreko pausoak jorratzea da helburu.

Hortaz, asmoa ibilbide honetan urrats kualitatiboak ematea da eta protagonistei beraien bizipenetatik eratorritako esperientziak entzutea, gerora EGK-k egiten duen lanean erronka eta proposamen hauek kontuan izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gai hauen inguruan EGK-k zeharkako diskurtso bat izatea: euskara inklusiorako tresna eta segregazioa hezkuntzan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Errealitate hauei buruz hitz egiteko espazioak sortzea.
- Migrazio prozesu bat bizi izan duten familietako gazteen ekarpenak entzutea eta zabaltzea.
- Bizipenetatik abiatutako esperientziak jasotzea solasaldi eta ikus entzunezkoen bitartez

Garapena

EKINTZAK:

Gaien inguruan ikerketa lanak egitea eta eragile eta gazteen saretzea egitea.

2022an garatuko den elkarretaratzearen diseinua prestatzea.

Lehen topaketa egitea.

Bideoa prestatzea.

Bideoa publikatzea.

Ondorioen bilketa eta ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Sortutako espazioen partaidetza maila.
- Egindako harremanak.
- Diskurtsiboki ateratako ondorioak.
- Argitalpen eta euskarrien irisgarritasun maila.

5.3 Bake eta bizikidetza lantaldea

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren arabera, egungo euskal gizartean azaleratuz doazen erronka berriak landuko dira lantaldean.

Aurreko urteetan zehar sortutako lantaldeari jarraipena emango zaio. Orain arte egin den bezala, urte honetan ere bizikidetzarako, giza eskubideetarako eta aniztasunerako 2024 Udaberri Planaren arabera, egungo euskal gizartean azaleratuz doazen erronka berriak landuko dira lantaldean.

2022ko helburu nagusietako bat izango da bereziki memoriaren eta Giza Eskubideen gaiak jorratzea, betiere ahaztu gabe lantaldean parte hartzen duten gazteek proposatu ditzaketen gaiak migrazioak, errefuxiatuen egoera, gerren ondorio humanitarioak eta berdintasun ezaren edo diskriminazioaren forma berriak, adibidez.

Horrez gain, urteko egun konkretuetan nazioarteko egunak ospatu eta aldarrikatzea gai zehatz batzuei ikusgarritasuna ematen laguntzen du, baita kontzientziatzen zein agendan berriro

jartzen ere.

Bake eta bizikidetza lan-arloaren kasuan hiru dira urtean zehar gorriz markatuta dauden egun bereziak: martxoaren 21a, Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, 21ean Bakearen Nazioarteko Eguna eta abenduaren 10ean Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

2021ean sortu zen lantaldeari jarraipena ematea eta gazte gehiago gerturatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteok Giza Eskubide eta Bizikidetza esperientziak partekatzeko gune erosoak sortzea.
- Memoriarekin lotutako gaiak lantzea.
- Giza Eskubideekin lotura duten bilerak egitea.
- Bizikidetza sustatzen duten hausnarketak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Lantaldearen koordinazioa.

Saioen prestaketa eta garapena egitea.

Urtearen ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantaldeak jarraikortasuna izatea.
- Landutako gaien kantitateaz gain kalitatea bermatzea.

- Lantaldearen proposamenen kalitatea.
- Lantaldeak proiektu bat aurrera eramatea.

5.4 Zurrumurruen Aurkako Sarearekin elkarlana

Atzerritarren edo migratzaileen inguruko zurrumurruak, estereotipoak eta auzokoen arteko elkarbizitzaren mesederako ez diren *fake new*-ak gero eta zabalduago daude gizartean. Horiek gainditzeko Euskadi mailan dagoen Zurrumurruen Aurako Sarearen (ZAS) barnean, Gasteizko taldean arituko da EGK urte osoan zehar gorroto diskurtsoari aurre egiteko asmoz, kulturarteko elkarbizitzan eragina izango duen desinformazioa ekidin ahal izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Zurrumurruen Aurkako Estrategia EGK barnera ekartzea.

HELBURU ZEHATZAK:
- ZASen estrategia EGKren egunerokoan txertatzea.
- Gasteizko Zurrumurruen Aurkako Sareko ekintzetan parte hartzea.

Garapena

EGK Zurrumurruen Aurkako agente den heinean, etengabeko prestakuntza jaso eta egunerokoan eragiten egongo da, estereotipo negatiboak eta zurrumurru faltsuak desaktibatzen saiatuz.

Hortaz, EGK-k ere bere gain hartuko du zurrumurruen aurkako estrategia bere egunerokotasunean kulturartekotasunean oinarritzen den gizarte baten eraikuntzan jarduteko.

Horretarako EGK-k Gasteizko Zurrumurruen Aurkako Estrategiak hilero egiten dituen bileretan parte hartzen jarraituko du hiriko Zurrumurruen Aurkako hurrengo ekintzak asmatzen eta haiei buruz hausnartzeko. Zurrumurruen Aurkako Sareen Topaketak, Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna (martxoak 21) eta taldeak urtean zehar antolatuko dituen ekintzak prestatzen eta horiek burutzen egongo da.

EKINTZAK:

Zurrumurruen Aurkako Sarearekin elkarlana mantendu.

Kanpora begirako elkarlana garatu.

Gasteizko Zurrumurruen Aurkako Sareko ekintzetan parte hartu.

2022ko elkarlanaren ebaluaketa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urtean zehar ZASek antolatutako ekitaldi zein formakuntzatan parte hartzea.
- Zurrumurruen Aurkako estrategia EGKren diskurtsoan txertatzea.

5.5 Gazteak, elkarbizitza, etorkizuna taldea

Bizikidetza funtsezko ardatza da etorkizuneko Euskadi eraikitzeko. Beharrezkoa da espazioak eraikitzea, non, gizarte gisa gure oroimena osatzen duten funtsezko gaiak artikulatuz, XXI. mendeko bigarren hamarkadan bizikidetzak suposatzen duenaren zutabeak ezarri ahal izango diren. Eta, horretarako, ezinbesteko gakoa da gazteek bizikidetza nola ulertzen duten ezagutzea.

Beharrezkoa da bizikidetzaren esanahia berreraikitzea, orain arte landutako prozesuetan ihes egin ahal izan duten aldagaiak aplikatuz. Izan ere, ezinbestekoa da berrinterpretatutako bizikidetza hori gure oraintsuko memoriaren funtsezko elementuekin uztartzea gazteen taupadak sakatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Gazteak protagonista izango diren prozesu bat garatzea, bizikidetzaren esanahiari buruzko hausnarketa eta eztabaida aske eta ireki baten inguruan, orainari eta etorkizunari begira.

HELBURU ZEHATZAK:

- Euskadin bizi diren gazteen ikuspegiei, erregistroei eta kontzeptu- eta bizi-esparruei buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatzea.
- Gazteek eztabaida-guneak sustatzea, jarraitutasuna lortzeko asmoz.
- Proposamenak egiteko asmoz hausnartzea eta eztabaidatzea, Euskadiko bizikidetzarako oinarrien eta gakoen dokumentu bihur daitekeena (edo ez).

Garapena

EKINTZAK:

Talde eragilea sortu.

Taldean elkarrizketak eta inkestak diseinatu.

Elkarrizketak egitea eta inkesta zabaldu.

Ebaluazioa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Gazteek eztabaida-guneak sustatzea.
- Taldean jarraitutasuna lortzea.
- Bizikidetzaren oraingo esanahia birplanteatzea.

5.6 Guztiok Batera

Proiektu hau Agenda 2030rekin batera koordinatuko da, plangintzaren 6.4 Guztiok Batera puntuan azalduko da.

5.7 Diskriminazioa etxebizitzarako sarbidean

EGK-k urteak daramatza gazteak Euskadin emantzipatzeko eta etxebizitza duin bat lortzeko dituzten zailtasunen errealitatea agerian jartzen eta egoera honen konponbidean ekarpenak egiten. Gazteez hitz egitean kolektibo homogeneo bat irudikatzeko joera dagoen arren, ez da horrela; gazte izateaz gain beste hainbat faktore daude are eta diskriminazio, estigma eta oztopo gehiago sortzen dituztenak etxebizitza bat eskuratzerako orduan; hauetako batzuk atzerritarra izatea, zuria ez izatea edota azentu atzerritarra izatea lirateke.

EGK-k, bere diskurtsoa zeharkakotze aldera, 2022an etxebizitza sarbidean ematen den xenofobia eta arrazakeria aztertu nahi ditu. Zehazki, alokairuan jarri nahi da fokua, erregimen honetan jabetzan baino gehiago ematen baita diskriminazio hau.

Batetik, alokairuan ematen den diskriminazio zuzena aztertuko da, hari honetan lanean diharduten hainbat eragilerekin kontaktua sortuko da eta EGK-k diskurtso bat sortuko du afera honen inguruan.

Bestetik, diskriminazio zuzen horren ondorioz berau jasan duten pertsonek, besterik ezean, zein egoera eta baldintzetako espazio edo etxebizitzetan bizi behar izaten duten jarriko da mahai gainean.

Proiektu hau Etxebizitza lan-arloarekin batera kudeatu da **Bake lantaldea** eta **Emantzipa...zer?** lantaldeetan landuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EAEn alokairurako sarbidean ematen diren xenofobia eta arrazakeriaren inguruko diskurtsoa eratzea eta diskriminazio honen ondorioak agerian jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKn diskurtsoa sortu etxebizitzarako sarbidean ematen den diskriminazioaren inguruan.
- Eragileekin kontaktua egitea eta sarea mantentzea.
- Diskriminazioak salatzea eta ekarpenak proposatzea.

- EGKren diskurtsoa eta egoera sozializatzea ikus-entzunezkoak erreminta moduan erabilita.
- EGKren diskurtsoa administraziora eta hedabideetara luzatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Eragileen saretzea egin, diskurtsoa sortu eta proiektua diseinatu.

Argazkietan parte hartu nahi duten pertsonekin harremanetan jarri.

Argazkiak atera.

Argazkiak editatu, inprimatu eta erakusketa diseinatu.

Argazki erakusketa gauzatu.

Urtearen ebaluazioa egin.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Eragileekin sorturiko sarearen balorazio kualitatibo eta kuantitatiboa.
- **Bake lantaldearen** eta **Emantzipa…zer?** lantaldeen interesa eta partaidetza proiektuan.

- Egindako hausnarketen sakontasuna eta diskurtsoaren kalitatea.
- Sorturiko erakusketaren kalitatea eta erantzuna.

5.8 Eragileekin elkarlana

Gizartean eragile ugari daude bakearen eta bizikidetzaren gaiak jorratzen dituztenak, betiere gazteekin erlazionatuta. Baketik, AMEKADI, Bakeola, UNESCO Etxea, SOS Arrazakeria, Ikuspegi edota Kale Dor Kayiko bezalako eragileekin, besteak beste, badauka EGK-k urte askotako harremana. Elkar ezagutzatik haratago elkarlana sustatzean bi eragileek irabazten dute, gazteentzako eta gizarterako lanketa sakonago eta emankorragoan bideratuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Gizarteko eragileekin elkarlana sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k harremana ez daukan eragileekin harremanetan jartzea edo harreman hori sendotzea.
- Bake eta bizikidetza gaiekin lan egiten duten eragileen artean EGKren lana ezagutaraztea eta beraien proiektuetarako EGKren diskurtsoa helaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Eragileekin elkarlana garatu.

Urtearen ebaluazioa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- EAE mailan lan egiten duten eragileek gazteen ikuspuntu eta iritziak ezagutzea EGKrekin elkarlana sustatu ostean.
- EGK-k bake eta bizikidetzan arloan duen papera indartzea.

5.9 Egunerokoa

EGKren lan arlo bakoitzean egiten den lanaz eta proiektuez gain, Gazte Kontseiluaren eguneroko funtzionamendua bermatzeko bestelako ekintzak ere egin behar dira. Honen barruan sartu daitezke ondorengo ekintzak, horiek gabe EGKren egunerokotasuna kolokan gelditu daitekeelarik: bilerak, aholkularitza eta bulegoa kudeatzeko lanak, memoriak, proiektuak aurrera eramateko gestio desberdinak edota datorren urterako plangintza.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKren eguneroko lana normaltasunez garatzen dela bermatzea.

HELBURU ZEHATZAK:
- COVID-19ak sortu ditzaken ezustekoei erantzun egokia ematea.
- Lantaldeko gainerako kideei euren lanean laguntzea.

Garapena

EKINTZAK:

Egoitzako kudeaketa lanak.

Plangintzak garatzea.

Lantaldearekin eta kanpoko eragileekin bilerak.

Urteko proiektuen garapena, balorazioa eta justifikazioa.

2022ko memoriak prestatzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bake eta Bizikidetza lan-arloari egiten zaizkion eskaerei erantzun egokia ematea.
- Lana hobetzeko egiten diren ekarpenak jaso eta lanean antzematea.
- Eguneroko lanak era egokian kudeatzea.
- EGK-ko beste lan-arloetako proposamenei baliagarriak diren balorazioak ematea eta ekintzetan parte hartzea.

6. AGENDA 2030

Agenda 2030 lan-arloaren 2022k plangintza hiru zutabetan oinarrituko da. Landutako proiektu eta ekintza guztiek ondorengo lan arloekin lotura izango dute: Agenda 2030aren ikuspegiaren txertaketa Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan (EGK) eta EGKren parte diren elkarteetan, Garapen Jasangarrirako Helburuen inguruko Formakuntza eta Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) hedapena. Lanketa hau lehenago hasi bada ere EGKn esaterako "Guztiok Batera" proiektua, gehienak lehen aldiz landuko dira Agenda 2030 lan-arloaren aldetik.

EAEko gazteek GJHen lanketan egindako ekarpenak baliatuz gazteen artean Agenda 2030aren garrantziaz jabetzea izango da egin beharra, eta Euskadiko gazteriak Agenda 2030ean egiten dituen ekarpenak batu eta kanalizatzea.

6.1 2030 Agendaren txertaketa

EGKn Garapen Jasangarrirako Helburuak lantzen badira ere, lanketa hori ez da berariaz egiten. EGK-k aurrera eramaten dituen proiektu guztietan Agenda 2030aren ikuspegia txertatzea ezinbestekoa da lanketa hori berariaz egiteko.

Horretarako, teknikari bakoitzarekin bere lan arloan zein helburu eta helmuga betetzen diren ikertu beharra dago. Ondoren, txertaketa egin eta txertaketa hori urteko plangintzan irudikatzeko. Hau, irudi bidez egin beharko da, urteko plangintzaren formatua bere horretan mantendu ahal izateko. Irudi eta kolore ezberdinekin, GJHen iruditegia jarraituz. Irudikapen hori eginda, bai urteko plangintzan zein urteko memorian, GJHen begirada txertatuko duen txostena egingo da, produktu formatuan, teknikariek barne mailan erabili ahal izateko.

Hori egiteko, Agenda 2030 teknikaria plangintza idatzi bitartean gainerako teknikariekin elkarlanean arituko da, GJHak proiektu ezberdinetan non dauden eta hauek erdigunera nola ekarri aztertzeko. Horrez gain, GJHen inguruko formakuntza ere antolatuko da EGK-ko teknikariei GJHen ikuspuntua txertatzea ahalbidetzeko.

1. Fasea: Erakundeak 2030 agendan duen eginkizuna aztertzea.
2. Fasea: erakundearen jarduera GHJekin lerrokatzea
3. Fasea: 2030 agenda erakundearen ardatz nagusi gisa txertatzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
GJHen begirada EGKn txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko Presidentzia, Lantalde Teknikoa eta Batzorde Iraunkorrak GJHen gaineko ezagutza izatea eta hauen begirada txertatzeko gaitasuna izatea eta egitea.
- EGK-ko publikazio guztietan (Sare sozialak, **Piztu!**, liburuak, web orrialdea...) GJHen iruditegia txertatzea.
- EGK-ko ekintzen plangintza eta memorietan GJHen garapena bermatu eta honen inguruko hausnarketa egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Teknikariekin bilerak eta aholkularitza eta Agenda 2030 teknikariaren feedbacka.

Urteko planeko GJHen txostena.

Memoriaren garapenean GJHen begirada txertatzea.

2023ko plangintzari begira GJHen begirada EGKn txertatzeko barne txostena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urteko plangintzaren txostena.
- Memoriaren garapenean GJHen begirada txertatzea eta horretarako teknikariek begirada hau txertatuta izatea.
- 2023ko plangintzari begira, GJHen begirada txertatzeko baliagarria izango den barne txostena egitea.

6.2 Formakuntza

GJHen inguruko ikuspegia barneratu eta ikuspegi hau egunerokotasunean erabili ahal izateko beharrezkoa da GJHak zer diren jakitea eta hauek identifikatu eta hauen aldeko lana nola garatu jakitea. Horretarako formakuntzak prestatuko dira, bi era ezberdinetan:

1. Formakuntza arrunta:

Formakuntza, EGK-ko Lantalde Teknikoari eta Batzorde Iraunkorrari zein EGKren barne dauden elkarteei bideratuta.

Honetarako 3 ikastaro mota garatuko dira, bakoitza bere ikasketa programazio eta unitate didaktikoekin. Orduka bananduta: 4 orduko ikastaroa, 8 orduko ikastaroa edo 12 orduko ikastaroak programatu eta hauetako bakoitzeko unitate didaktikoak garatuko dira.

2. Formatzaileei bideratutako formakuntza:

GJHen hedapena elkarte eta pertsona askoren gain dago. Horretarako beharrezkoa da elkarte, erakunde, Gobernuz Kanpoko Erakunde, ikastetxe eta abarretako formatzaileak prestatzea. Kontuan izanda gai honen inguruan jada jakintza badagoela etorkizuneko formatzaile hauen artean, helburua programazioa eta unitate didaktiko ezberdinak garatzea izango da, euskaraz, material hau era askean erabili ahal izateko tokian tokiko erakunde, elkarte edo ikastetxeetan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

GJHen inguruko ezagutza handitzea eta GHJen gaineko formakuntza emateko gai den jendea prestatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko teknikariek GJHen inguruko ezagutza izatea.
- GJHn inguruko lantegi, formakuntza eta abarretarako materialak prestatzea.
- GJHen inguruko formatzaileak prestatzea.
- GJHen inguruko lantegiak eta ikastaroak eskaintzea Euskadiko gazte elkarteetan.

Garapena

EKINTZAK:

Materialaren garapena eta unitate didaktikoen prestakuntza.

Materialaren eta unitate didaktikoen maketazioa eta edizioa.

Ikastaro eta lantegien antolaketa, lekuan lekuko berezitasunak baliatuz (online, lantegi formatua, ikastaro trinko formatua, ohiko ikastaro formatua).

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ikastaro, lantegi eta formakuntza saio ezberdinetarako materiak propioa egitea.
- Emandako ikastaro ezberdinen zenbatekoa.
- Ikastaroetan parte hartu duen jende kopurua.
- Ikastaroetatik ateratako formatzaile kopurua.

6.3 2030 Gazte Plaza Proiektu Ibiltaria

Garapen Jasangarriko Helburuen inguruko ezagutza gazteen artean eta biztanleria orokorrean handitzeko, **Gazte Plaza proiektu ibiltaria** garatuko da.

Horretarako, museo ibiltaria egingo da, Euskadiko hiru lurralde historikoetako hiriburuetan: Gasteiz, Bilbo eta Donostia. Museoak bere baitan GJHen inguruko informazioa izango du, eta hiriburu bakoitzean GJHekin lotutako alor bat landuko da: berdintasuna, klimaren aldeko ekintza eta osasuna eta ongizatea, betiere GJHak lurraldeko berezitasunera ekarrita.
Museoak GHJetan aditua den gidaria izango du egunean 3 orduz, eta hiri bakoitzean aipatutako alorren inguruko 2-3 ekintza burutuko dira, adituen eta hiriko elkarteen arteko elkarlanarekin. Era berean, goizetan ikastetxe ezberdinen bisitak antolatuko dira, museo ibiltaria ezagutu eta ekintza ezberdinak egiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

GJHen ezagutza gazteen artean eta biztanleria orokorrean handitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- GJHen ikusgarritasuna handitzea EAEk hiru lurralde historikoetako hiriburuetan.

- GJHen ezagutza eta hauen garrantziaren jabetza bultzatzea Euskadiko gazteriaren artean.
- GJHak lantzeko aukera emango duen espazio mugikorra izatea EAE mailan.
- Gazteek GJHen eta Agenda 2030ean ekarpenak egiteko duten ahalmenaz jabetzea eta lan hori egiteko beharrezko gune eta baliabideak eskaintzea.
- Lurralde historiko bakoitzeko elkarte, erakunde, instituzio eta abarren arteko aliantzak bultzatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Edukitzailea prestatzea: karpa, guneen banaketa eta kanpo eta barne diseinua.

Burutuko diren ekintzen diseinua.

Materialen kudeaketa: gordetzeko tokia, leku aldaketak, muntaketa eta zaintza.

Udaletxeen baimenak kudeatu.

Komunikazioaren prestaketa.

Ekintza burutzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Museo ibiltarira sartutako jende kopurua.
- Ekintza ezberdinetan parte hartutako jendearen kopurua.
- Antolatutako ekintza kopurua.
- Bisita egitera etorritako ikastetxe eta ikasle kopurua.

6.4 Guztiok Batera

2020an EGK-k UNESCO etxearen lankidetza eskaera jaso zuen 2030 Agenda lantzeko. Euskadi mailako beste eragile batzuekin batera Inor Atzean Utzi Gabe lantaldea eratu eta ordutik parte hartu du bertan EGK-k, gazteen ikuspegia mahai-gaineratuz... GJHen garapena EAEn egoera zaurgarrian dauden kolektiboekin lantzea da lantaldearen helburua, ikerketak eta formakuntzak eginez, besteak beste. Proiektuan AMUGE, Mujeres en la Diversidad, Foro Rural Mundial, Aldarte, Gehitu, Unesko Etxea eta EGK hasi baziren ere, egun Coop SF 34, Bidaya Elkartea, Oscarte, UNICEF Euskadi eta Amesten Elkartea ere batu dira.

2022. urtean erakundeak indartzea, ezagutza eraikitzea eta sareko lana indartzen jarraitzea izango da helburua.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskal gazteen artean Garapen Jasangarrirako Helburuen lorpenaren aldeko pausuak ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2021ean egindako lanari jarraipena ematea.
- Agenda 2030aren formakuntzak aurrera eramatea.
- Gazteen erronka eta aldarrikapenak gainerako elkarteei eta UNESCO Etxeari helaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Aliantzak sustatu.

Elkarteen arteko ikerketarekin jarraitu.

Agenda 2030 jardunaldia antolatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- EAE mailan lan egiten duten eragileek gazteen ikuspuntu eta iritziak ezagutzea EGKrekin elkarlana sustatuz.
- EGK-k **Guztiok Batera** proiektuan daukan pisua handitzea.

7. BERDINTASUNA

Une emankorrak utzi zituen 2021ak. Pixkanaka etxeetatik irteten eta espazio publikoa hartzen hasi ginen, bai eta parte hartze dinamika ezberdinetan hitzarekin jostatzen. Gazteria hasi zen esnatzen eta mugimendu feminista bere aldarrikapenak egiten.

EGK-ko Berdintasun lan arloarentzako ere, urte aberatsa izan zen 2021a. Emakunderekin izandako harremana estutu zen **Beijing+25** proiektuarekin batera hasi genuen ibilbidean, eta aldi berean honek **Gaur8**-ko taldea egonkortzeko prozesua hasi zuen. EGK-k hezkidetzarekin duen konpromisoa berretsi zuen eta etxebizitza eta generoa zeharkatzen dituen ibilbidean aurrera pausuak eman ziren.

Argi dago, gazteria ezin dela eraiki berdintasunean oinarritzen ez den testuinguru batean, eta EGK testuinguru hori eraikitzeko bidean dago. Nola? Hasteko EGK-ko espazioan bertan, barnera zein kanpora begirako berdintasunezko ekintzak diseinatuz, hau da, **EGK-ko II. Berdintasun Planarekin** lan eginez.

Aurten ere, etxebizitzaren gaia jorratu nahi da, emakume gazteen emantzipatzeko moduak aztertuz eta erakutsiz. Aurten ere, zaintzaren ibilbidea jorratu nahi da, diskurtso aberasgarriak dituzten emakumeak EGKra gonbidatuz, EGKan eurentzako espazioa eginez. Aurten ere, hezkidetzaren garrantzia azpimarratu nahi da, ez direlako ulertzen hezkuntza komunitateak berdintasun diagnostiko gabe, patioak birpentsatu gabe eta materialak berrikusi gabe.

Jarraian, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2022. urtean aurrera eramango dituen proiektuak aurkezten dira. Horiek, Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren elkarlanaren bitartez diseinatuak eta **Gaur8** lantaldearen ekarpenekin osatuak.

Ondorengo lerroetan EGK-k 2022an Berdintasun lan-arlotik aurrera eramango dituen proiektuak ageri dira. Hauek dira proiektuak hurrenez hurren: **Gaur8 lantaldea, EGK-ko II. Berdintasun**

Plana, Gune Anitza, Berdintasun Protokoloak, Zaintzen Plaza, Etxebizitza eta generoa, Hezkidetza, Harremana feminismoko eragileekin eta egunerokoa.

7.1 Gaur8 lantaldea

Gaur8 lantaldea EGK-ko berdintasun lan-arloko diskurtsoak sortzen dituen espazioa da. Berau da EGK-ko berdintasun arloaren motorra eta urte osoan zehar egiten diren proiektuen hausnarketak garatzen dituena. 2016an sortu zen eta ordutik modu ezberdinetan funtzionatu izan du: talde handian, txikian, aurrez-aurreko bileren bidez, birtualki... Hala ere, aipatzekoa da pandemiaz geroztik, bilera birtualak egin ohi direla modu konstantean, formatu honek aukera ematen baitu toki ezberdinetan bizi diren emakume gazteak biltzeko.

2022an talde izaeran lan egin nahi da batez ere. Hau da, taldea osatzen duten kideen arteko harremana sendotu, dinamika horizontalak garatu eta taldearekiko konpromisoa birdefinitu nahi da. Finean, Berdintasun arloko oinarria izan behar badu, hau ondo egituratu behar da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Talde izaera landu eta egonkortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren Berdintasun arloko diskurtsoa eratu eta eguneratzea.
- Berdintasun lan-arloko erronka berriak identifikatzea eta proposamen berriak egitea.
- Diskurtsoak sortzea eta gizarteratzea.
- Berdintasun arloan dauden gazte elkarteen eta norbanakoen harremana saretzea eta sendotzea.

Garapena

Ekintzak:

Espazio birtuala kudeatu eta harreman birtuala zein aurrez-aurrekoa mantendu.

Lantaldearekin bildu eta gai anitzekiko hausnarketak garatu.

Lantaldearen proposamenak garatu eta landu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Talde izaeraren nolakotasuna.
- Taldeak dinamizatzeko eta mugitzeko adierazi duen gaitasuna.
- Topaketetan ateratako diskurtsoen aberastasuna.
- Lortutako sare eta harreman berriak.

7.2 EGK-ko II. Berdintasun Plana

2021ean EGK-ko **II. Berdintasun Plana** diseinatu, garatu eta publikatu zen. Hala, 2022an **II. Berdintasun Planean** zehaztuta dauden ekintzak burutuko dira. Horietako batzuk maila orokorrean kokatzen dira eta urte guztietan errepikatu beharrekoak dira. Beste batzuk, ordea, maila konkretuago bat dute eta horietako batzuk 2022an egin nahi dira.

Lehenik, 2022an EGK-ko elkarteetako emakume gazteenekin, 16 eta 22 urte bitarteko adin tartea dutenekin, publikoki hitz egiteko estrategiak landu nahi dira. Bigarrenik, 2021ean hasi zen espazioen berrantolaketa bat eman nahi da gainerako espazioetan (Gasteiz eta Donostia), parte-hartze espazioak goxatzeko eta espazio seguruak sortzeko.

Bestalde, Batzorde Teknikoari eta Batzorde Iraunkorrari formakuntza eman nahi zaio ikerketa eta argitalpenetan emakume adituei garrantzia emateko. Eta azkenik, **Gaur8** lantaldetik, maskulinitate eredu berrien diskurtsoa landu nahi da indarkeria matxistaren sentsibilizazio bezala.

Ekintza hauek guztiak, ildo nagusi bati loturik egin nahi dira: planaren sozializazio bat ematea.

Hau da, bertan ezarririko helburuak eta ekintzan Berdintasun lan-arloaren esku soilik ez geratzea eta EGKren egitura guztiak inplikazio bera izatea Planari dagokionean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKren barne nahiz kanpo lanean berdintasuna zeharkako balore gisa errotzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko **II. Berdintasun Plana** ezagutaraztea
- **II. Berdintasun Planean** zehaztuak dauden neurriak inplementatzea.
- Ezartzen diren neurrien jarraipena eta balorazioa egitea.

Garapena

Ekintzak:

Planaren neurrien garapena.

Planaren difusioa eta hau hausnartzeko espazioak.

Planaren neurrien ebaluazioa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ekintzak aurreikusita dauden epeak bete diren.
- Neurrien inpaktuen balorazioa.
- Neurrien eraginkortasunaren ebaluazioa.
- Urte bukaerako ebaluazio osoa.

7.3 Gune Anitza

Gune Anitza Berdintasuna eta Aniztasunarekiko aldekotasuna erakusten duen zigilua da, eta hau EGKren Berdintasun arloko proiektu iraunkorretako bat da.

2022an ere, batez ere, zigiluaren mantenua egin nahi da, hala, espazioren batek atxiki nahi balu eskaerari erantzuna emango zaio. **Gune Anitzara** atxikitzeko aukerak zabaldu nahi dira baita ere, horretarako, urtean zehar eta egoki ikusten denean, zigiluari buruzko difusioa egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasunarekiko eta aniztasunarekiko aldekotasuna erakustea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **Gune Anitz** gehiago txertatzea.
- Atxikitako espazioen ebaluazio bat egitea.
- Hobekuntza proposamenak eguneratuak mantentzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gune Anitza zigilua interesgarri gera daitekeen guneen bilaketa eta horiekin harremanetan jartzea.

Jada **Gune Anitza** diren espazioen ebaluazio jarraitua egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lortutako espazio berrien zenbatekoa eta horiekin izandako difusioa nolakoa izan den.
- Aurreko urteetan atxiki diren espazioen jarraipena nolakoa izan den.

7.4 Berdintasun Protokoloak

2021eko Batzar Orokorrean EGK-k salaketa publikorako protokoloen aldaketak onartu ziren, ordura artekoari ekarpen batzuk eginez. Hala, 16-30 urte bitarteko gazteengan ematen diren eraso sexista eta LGTBI+fobikoak salatzen dira, juridikoak zein sozialak direnak. Horretarako **Gaur8** lantaldean egindako hausnarketa prozesu batean erabakitako irudiak erabiltzen dira salaketak egiterakoan.

2022an urrats bat gehiago eman nahi da, eta protokoloak barne hartzen dituen kasuez gain, gazterian ematen diren indarkeria matxistetan esku-hartu nahi da. Horretarako, Komunikazio arloarekin batera, kasuan kasuko jarraipenak egingo dira, EGK eraso anitzen aurrean posizionatzeko eta salatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eraso sexistak eta eraso LGTBI+ fobikoen aurrean **Berdintasun Protokoloak** aktibatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eraso anitzen aurrean **Berdintasun Protokoloak** martxan jartzea.
- **Berdintasun Protokoloen** eragina mantentzea.
- EGK-k berdintasunarekiko duen konpromisoa berrestea.

Garapena

EKINTZAK:

Albisteen jarraipena eta ematen diren erasoen informazioa biltzea.

Erasoa ematen den guztietan dagokion aktibazioa egitea.

Erasoen gaineko prebentzioa lantzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Aktibatutako protokolo kopurua eta horien kudeaketa.
- Lortutako eragina gazterian.

7.5 Zaintzen Plaza

2021ean **Zaintzen Plaza** izeneko proiektua sortu zen. Hasiera batean, gazteek zaintzen sisteman duten paperari buruz hausnartu nahi izan zen, mugimendu feministak aldarrikaturiko *zaintzak erdigunera* ideiarekin bat eginez eta gazteen errealitatea zaintzen sisteman zein zen aztertuz. Proiektua garatuz joan ahala ikusi zen gazteek dependentziaren bat dutenen zaintzei baino, auto zaintzari buruz gehiago erreparatu ziela: Nola zaintzen dute elkar? Nola harremantzen dira euren ingurunearekin? Zerk eta nola eragiten die? Zer harreman toxiko sortzen dituzte? Zer genero-patroi jarraitzen dituzte? Nola deseraiki daitezke?

Hala, 2021eko azaroaren 4an **ERRAIETATIK: Harremanak, gorputzak eta zaintzak** izeneko topaketa antolatu zen; solasaldi bat, gazteek dituzten problematika desberdinei buruz hitz egiteko, ikuspegi feministatik eta gazteengandik hurbil egongo den formatu batean.

Honek izan zuen arrakasta ikusita, 2022an, bide beretik jo nahi da. Feminismoa ardatz izanik, emakume gazteei sortzen zaizkien gai anitzak erdigunera ekarriz: amatasuna, gorputza, osasun mentala, abortua...

Guzti hau, formatu erakargarrietan egin nahi da, gaian aditu eta arituak diren emakume gazteak

gonbidatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Feminismoa ardatz izanik, emakume gazteei sortzen zaizkien gai anitzak erdigunera ekartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Emakume gazteei sortzen zaizkien kezka nagusien hausnarketak biltzea.
- Gaian adituak eta arituak diren emakumeak EGKren espazioetara gonbidatzea.
- Gazteen artean hausnarketa eta elkar banaketarako espazio bat sortzea.
- Gazte eragile desberdinek zaintzen inguruan duten diskurtsoez baliatuz EGKren diskurtso propioa sortzea.

Garapena

EKINTZAK:

Emakume gazteei interesatzen zaizkien gaiak landu.

Gai horiek lantzen dituzten emakumeak edota gazteak identifikatu eta hauekin harremanetan jarri.

Topaketaren dinamizazioa aurrera eraman: hitzaldiak prestatu, dinamikak kudeatu...

Proiektuaren ondorioak landu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ateratzen diren diskurtsoen sakontasuna eta gaiaren lanketa kualitatiboa.

- Hausnarketa eta pentsamendu feminista eragitea.
- Proiektuak emakume gazteengan eta beste eragile batzuengan duen irisgarritasuna.

7.6 Hezkidetzaren lanketa

EGK 2018an hasi zen hezkidetza lantzen, hasiera batean hezkuntza formalean, ondoren, astialdi munduan. Bide honetan ALBOAN fundazioarekin elkarlan estua garatu da eta 2021ean astialdi taldeetan hezkidetza lantzako autodiagnosia garatu zen beste elkarte batzuekin batera.

Autodiagnostiko hau, hezkidetza espazioetako taldeek, euren taldeetan, ekintzetan eta materialetan duten hezkidetza neurtzeko tresna bat da. Hala, 2022an, autodiagnostiko horren garapenari eta inplementazioari eutsi nahi zaio bereziki.

Horretarako, autodiagnostiko tresna nola inplementatu erakutsiko zaie talde ezberdinei, eta hau inplementatzeko prozesuan EGK taldearen bidelaguna izango da; zer aztertu, nola kudeatu eta zer diseinatu laguntzeko.

Tresnaren inplementazioaz gain, 2022an, hezkidetzaren alorrean beharrezkoak diren ekintzak egiten jarraituko da: hitzaldietan parte hartzen, ikastaroak prestatzen, formatzen...

Proiektu hau Berdintasun lan-arloarekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkidetzako autodiagnostiko tresna garatzea eta inplementatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi taldeetan tresnaren erabileran bidelagun izatea.
- EGKn dauden astialdi elkarteetan hezkidetza lantzea.
- Hezkidetzari buruz EGK-k duen diskurtsoa aberastea.

Garapena

EKINTZAK:

Tresnaren inplementazioa egingo duten taldeekin harremana sendotu.

Tresna aztertzeko eta inplementazioa nola doan ebaluatzeko saioak taldeekin.

Hezkidetzari buruzko tailer / hitzaldietan parte hartu.

Ebaluazioa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Taldeekin sortu den harremana nolako den.
- Diseinaturiko tresna nolakoa den eta aurrera begira zer egin daitekeen.
- Hezkidetzarekiko EGK maila diskurtsiboan non dagoen neurtzea.

7.7 Etxebizitza eta Generoa

Proiektu hau Etxebizitza lan-arloarekin batera koordinatuko da, plangintzaren 1.4 Etxebizitza eta generoa puntuan azalduta dago.

7.8 Nazioarteko egunak

Nazioarteko egunak, urtero bezala, esanguratsuak izan ohi dira EGKrentzat. Horregatik, historiako gertaera jakin batzuen ondorioz edota orain gutxi finkaturiko aldarrikapenengatik egun batzuk azpimarragarriak dira.

EGK-k urtero, egun horietan, bere diskurtsoak argitaratzeko aprobetxatzen du eta 2022an hori

egiten jarraituko du. Aurten ordea, diskurtsoek barrura begirako izaera izango dute, batez ere, egun horiek ardatz harturik, lan-arloetako diskurtsoak indartzeko eta lantaldeetan gaiak jorratzeko.

Barnera begirako bide hau modalitate ezberdinetan egingo da: liburu bat hartu eta dinamika bat antolatu lantaldeetako kideekin, ikastaro batzuk egin, film bat erreproduzitu eta horren inguruko solasaldi bat sortu...

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Urtean zehar feminismoarekin zerikusia duten nazioarteko egunak azpimarratzea eta egun horietan manifestu edo diskurtsoa plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Nazioarteko egunen garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn parte-hartzea bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.
- EGKn parte hartzen duten elkarteak data hauetan publikatutako manifestu eta diskurtsoetan inplikatu eta hauen atxikimenduak aurrera eraman indarrak batzeko.

Garapena

EKINTZAK:

Zientziako Emakume eta Neskaren Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

Emakume eta Gizonen Arteko Soldata Berdintasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

LGTBI+ fobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako kanpainen difusio maila eta hedapena.
- Barnera begira diskurtsoa ea landu den.

7.9 Harremana feminismoko eragileekin

EGKrentzat funtsezkoa da mugimendu feministako eta LGTBI+ kolektiboko eragileekin harremanetan egotea. Alde batetik gazteen beharrak zeintzuk diren jakiteko eta horien aurrean lanketa ezberdinak egiteko. Bestetik, politika publikoetan eragin ahal izateko ezinbestekoa delako diskurtsoak eguneratzea eta gazteriatik gertu egotea.

2022an lehenik eta behin, eragile ezberdinekin harremana sendotu nahi da, uste delako EGKren diskurtsoa garatzeko ezinbestekoa dela harreman hau estutzea. Baina urrats bat gehiago eman nahi da aurten, hala, eragile hauen espaziotan parte hartzeko beharra ikusi da. Eurek ere EGK beraien lanetan presente izan dezaten.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasuna eta LGTBI+ arloan lan egiten duten elkarteen, eragileen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKn egiten den lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen

proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.

- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien partaidetza lortzea.

Garapena

EKINTZAK:

Feminismoa eta LGTBI+ arloan diharduten eragile ezberdinekin bilerak egin eta harremanak sendotu.

EGK-ko eta EGK-koak ez diren elkarteen artean gazteen parte hartzea bultzatu feminismoa eta LGTBI+ gaiei buruzko proiektuetan.

EGK-ko elkarteek eta administrazioak antolaturiko eta feminismoa eta LGTBI+fobia lantzen diren espazioetan parte hartu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin izandako bilkura.
- Egindako kontaktu berri kopurua.
- EGK eragile horien artean ezagutzera eman izana.

7.10 Egunerokoa

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbesteko dute kontuan izatea urtean zehar beharrezkoak izango diren barne nahiz kanpo koordinaziorako bilerak, baita ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukerak ere. Gainera, Berdintasun lan-arloaren kasuan, gaiak berak dakarren zeharkakotasuna eta **I. Berdintasun Planaren** barne neurriak ezarri behar direla kontuan izanik, barne lanak pisu handia hartuko du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.
- Beste lan-arloetako berdintasun ikuspegiko ekarpenak egitea.
- Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta **II. Berdintasun Planaren** ebaluazioak egitea.
- Hedabideetan agertzea, hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Bilera mota desberdinak egin.

Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta **II.Berdintasun Planaren** ebaluazioak egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako barne lanaren eraginkortasuna eta koordinazioa.
- Aurreikusita ez zeuden proiektu berrien kudeaketa eta antolaketa.

8. KOMUNIKAZIOA



Komunikazio lan-arloaren helburua Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazte eta administrazioengana hurbiltzea da. Bide honetan jarraitzeko asmoarekin, 2022an ezagutza maila handitzea eta proiektu desberdinen bitartez EGKren irudia ezagutarazten jarraitzeko estrategiak izatea izango da jomuga.

8.1 Diseinatzaile gazteen lan-poltsa

Aurreko urteetan bezala, EGKren lantalde Teknikoak izango dituen beharrak aurreikusita, diseinatzaile gazteen lan-poltsarekin elkarlanean arituko da elkarteen plataforma. Lehenik, 2021ko lan-poltsan dauden eta geratuko diren diseinatzaileak aukeratuko dira. Ondoren, proiektuak gauzatzeko behar diren diseinatzaile profilak ikusita, deialdi berria egingo da abenduan eta honekin batera hauen aukeraketa egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k 2022an zehar izango dituen diseinu lanak egiteko diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzea diseinatzaile gazteei lan aukerak emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k bere eguneroko lana zabaltzeko beharrezkoak diren euskarrien diseinua, maketazioa, etab. Euskarri hauek kartelak, esku-orriak, liburuxkak, txostenak, eta abar izango dira.
- EGKren hainbat kontzeptu zabaltzeko irudi espezifikoak gauzatzea.

Garapena

EKINTZAK:

2022an diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzen zutenak ebaluatu.

Lantalde Teknikoaren behar diren profil berriak zehaztu.

2023ari begira deialdi berria egin abenduan eta CV eta porfolioak jaso.

Urtean zehar Lantalde Teknikoaren beharrak kudeatu.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Teknikari bakoitzak diseinatzaile batekin lan egin ostean ebaluazioa egingo du. Urte amaieran, diseinatzaile bakoitzaren ebaluazio orokorra egingo da (baliteke behin baino gehiagotan lan egitea diseinatzaile berdinarekin) eta orduan erabakiko da 2023ko lan-poltsan nork jarraituko duen eta nork ez.
- Aurkeztutako produktuek zer nolako erantzuna izan duten: administrazioen balorazioa, Batzorde Iraunkorraren iritzia, Lantalde Teknikoaren ebaluazioa, gazteengandik jasotako erantzuna, etab.

- Ezarri diren beharrak aztertu nahikoak izan diren ala ez ikusteko. Ezetz izanez gero, deialdi berriari begira behar horiek gehitu.

8.2 Piztu! Buletin digitala

Piztu! buletin digitala bi edo hiru astean behin bidaltzen zaie harpidetu diren gazte, gazte-elkarte, norbanako eta administrazioei. Gazteek gazteentzat egindakoa da eta, bertan, besteak beste, honako edukiak biltzen dira:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarteen jarduerak.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldiak.

Datuen Babeseko aldaketa aurretiko kopurua berreskuratzeko lanean ari da EGK.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) gazte elkarteen eta bestelako gizarte eragileen lana ikusaraztea eta **Piztu! buletin digitalak** duen itxura eguneratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikusarazi eta balioan jartzea.

- Euskara sustatzea (%60 gutxienez euskaraz).
- Gazteriak dituen proposamenak eta eskaerak aditzera ematea.
- Gazteek dituzten proposamenak ere espazioen kudeaketarako gomendioetan txertatzea eta gazteen diskurtsoa balorean ezartzea.
- Harpidedun kopurua igotzea.
- Itxura gaur egun zabaltzen diren buletin digitaletara egokitzea, ikusizko edukiei garrantzia handiagoa emanez.

Garapena

Piztu! buletin digitala bi edo hiru astean behin bidaltzen da, EGK-k egunerokoan sortzen dituen albisteen araberakoa da maiztasuna.

EKINTZAK:

Piztu! buletin digitala kudeatu.

Lantalde Teknikoarekin koordinatu ekitaldi eta proiektuetan **Piztu! buletin digitala.**

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Komunikazio arloak **Piztu! buletin digitalak** izan dituen emaitzen ebaluazioa egingo du urte-amaieran, aldez aurretik finkatutako irizpideak jarraituz:

- Maiztasuna mantentzea: bi astean behin bidaltzearena bete den ala ez.
- Harpidedun kopurua handitzen jarraitzea
- Albisteen aniztasun maila bermatzea.
- Buletinean agertutako eragileen aniztasun maila handitzea.
- Jasotako iradokizunak handitzea: eragile eta administrazio sarearen inplikazioa eta eragileen kopurua haztea.

- Lortutako inpaktu maila mantentzea: *getResponde* bidez, bidalitako buletin bakoitzaren estatistikak lor daitezke.

8.3 Sare sozialak kudeatu

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hainbat sare sozial erabiltzen ditu zenbait helbururekin. Batetik, lanerako garrantzitsua izan daitekeen informazioa jasotzeko; bestetik, eguneroko lana ezagutarazteko; eta, azkenik, gazteei, elkarteei eta bestelako eragileei zerbitzua emateko.

EGK-k dituen sare sozialak honakoak dira: Twitter, Facebook, Instagram, LinkedIn eta YouTube. Lehen hiruretan edukia ia egunero eskegitzen da (Twitter eta Instagramen egunean behin baino gehiagotan). Bestetik, LinkedIn EGKren albisteak (webgunekoak batez ere) posizionatzeko erabiltzen da. Eta, azkenik, YouTuben ekitaldi ororen ostean egindako laburpen bideoak eskegitzeko. Hau, era berean, webgunearen bitartez zabalduko da eta eragile ezberdinei eta parte-hartzaileei emailez bidaliko zaie.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKtik kanpo dauden gazte, gazte-eragile, elkarte, hedabide eta administrazioekin konektatzea eta lotura, interakzio eta irismen hori handitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren azken albisteen berri ematea.
- Erabiltzaileekin elkarrizketa sortzea.
- EGKrentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioa biltzea.
- EGKren marka kudeatzea eta gai ezberdinen gainean bere posizionamendua plazaratzea.
- Gazte elkarteen azken albisteak gertutik jarraitzea eta gazteria arloko bestelako eragileen azken orduaren berri izatea.
- Gazte eragileen albisteen eta agenda-deialdien berri ematea.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak ematea.

Garapena

Sare sozialen kudeaketa urte osoan zehar egiten da. Ia egunero hainbat bilaketa egiten dira EGK-k dituen sareetan eta baita Googlen ere: zer esan den EGKri buruz, zer nolako oihartzuna izan duten aurkeztutako proiektuek eta hauen ondorioz izandako agerraldiek, EGK-k indarrean dituen protokoloak direla-eta gertakariren bat egon den, etab.

Horretaz gain, EGKrekin zerikusi zuzena edo EGK-ko lan-arloekin lotura duen informazioa eskaintzen da, erabiltzaileekin interakzio handiagoa bilatzeko eta EGKren marka indartzeko.

Azkenik ebaluazioa egiten da: interakzioa, irismena, jarraitzaile kopurua, etab. Horretarako sare sozial bakoitzak eskaintzen dituen erremintak erabiltzen dira, ebaluazio atalean zehazten den bezala.

EKINTZAK:

- Sare sozialak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Sare sozialen kudeaketaren ebaluazioa egiteko hainbat tresna erabiltzen ditu komunikazio teknikariak:

Facebook orrialdearekin sare sozialak berak ematen dituen baliabideak erabiltzen dira. Hauei esker argitalpen bakoitza zenbat pertsonek atsegin duten jakin daiteke, zenbatek elkarbanatu eta zer nolako irismena izan duen, hau da, zenbat inpaktu izan dituen. Horretaz gain, hilero estatistika orokorragoak ateratzen dira. Era honetan estrategia eralda daiteke, eta, kanpaina zehatzak eginez gero datu konkretuak lor daitezke.

Twitter profilarekin sare sozialak eskaintzen duen Twitter Analytics erabiltzen da, interakzioa, irismena eta bestelako datu esanguratsuak lortzeko. Kasu honetan ere hilero estatistika orokorragoak ateratzen dira. Era honetan estrategia eralda daiteke, eta, kanpaina zehatzak

eginez gero datu konkretuak lor daitezke.

Instagramen argitalpen bakoitzak duen irismena begiratzen da, ikustaldiez gain zer nolako interakzioa egon den aztertzeko. Era berean, egindako storyek izandako bilakaera eta tarteka jarraitzaile kopuruan izandako aldaketak kontuan izango dira.

Azkenik, proiektu garrantzi bakoitzean erabiltzen den traola aztertzen da.

2022rako helburua hauetan sakontzen jarraitzea da, erabiltzaileek EGK-ko sareekin duten harremanari buruz ahalik eta informazio gehien ateratzeko.

8.4 www.egk.eus webgunearen mantenua



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere eguneroko lana egiteko webgunea du, bere zerbitzari eta mantenuarekin. Horretarako, kanpo enpresa hautatu da. Horretaz gain, bai Lantalde Teknikoa zein Batzorde Iraunkorra komunikatu ahal izateko Gmail kontu bat dute.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren www.egk.eus webguneak ondo funtzionatzea eta EGKren Lantalde Teknikoak eta Batzorde Iraunkorrak helbide elektronikoa izatea.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-ko webguneak duen zerbitzua emateko enpresekin harremanetan egon.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Webguneak urtean zehar zein arazo izan dituen eta hautatutako enpresak emandako erantzuna hauen aurrean.

8.5 www.egk.eus webgunea kudeatu

EGKren webgunea, www.egk.eus, elkarte plataformaren tresna eraginkorrena da Lantalde Teknikoak egiten duen lana islatzeko: lan-arlo bakoitzaren azken albisteak, lan deialdiak, antolatutako ekintza eta proiektuen berri eman, lantaldeen bilerak jakinarazi eta sortzen diren produktuak (bideoak, txostenak, etab.) publikatu, EGK-ko elkarteen informazioa eskaini, gazteei bideratutako ekimenak agendan txertatu, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k egiten duen lanaren berri ematea ekosistema digitalaren erdigune izanda.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren azken albisteen berri ematea.
- EGKren argitalpenak Interneten eskuragarri jartzea.

- EGK-k dituen gela eta materialen lagapena kudeatzea.
- EGK-ko Lantalde Teknikoko kideekin harremanetan jartzeko prozesua erraztea.
- EGK-ko elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldi, proiektu edo egitasmoen berri ematea webguneko agendan.
- Elkarteen zerrenda gaurkotu bat mantentzea.

Garapena

Webgunearen kudeaketa urte osoan zehar garatzen den lana da, hau da, albisteen atala EGKren eguneroko lanarekin hornitzea eta agendan EAEko gazteak protagonista dituen edo haientzat interesekoak diren ekitaldi, egitasmo edo proiektuak jasotzea egunero egin beharreko lanak dira. Horretaz gain, webguneak behar duen bezala erantzun dezan, komunikazio-teknikariak optimizatu egingo du (albiste guztiek irudi optimizatuak izatea, irisgarritasuna bermatzea erabiltzaile orori, SEO aholkuak jarraitu, etab.) Google bilatzailean kokapena hobetze aldera.

Bestetik, webgunean finkoagoak diren atalak (banerrak, elkarteen datuak, irudiak, etab.) bestelako maiztasun batekin berrituko dira. Honela, erabiltzaileek jarraipen bat nabarituko dute, baina aldi berean kanpaina berezien berri izango dute. Honekin batera, txostenak ateratzen diren heinean webgunean eskegiko dira edonork ikus eta irakur ahal ditzan.

EKINTZAK:

Webgunea kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- GoogleAnalytics zerbitzuaren bitartez www.egk.eus webguneak jasotzen duen erabiltzaile kopurua. Aurreko urteekin alderatuko da eta, era berean, kanpaina edo informazio-zabaltze puntualak egon direnean erabileran gorakadaren bat eman den aztertuko da.

- Bestetik, bai urtean zehar eramango den estrategia zein 2022an eta etorkizunean jorratuko dena birdefinitzeko, hilero jarraipen bat egingo zaio.
- WebguneakGoogle bilatzailean duen posizioa.
- Albisteen eta, orokorrean, webgunearen SEO egoera.
- Publikatutako albiste, txosten edo argazki-galerietan jasotako iruzkinak.
- Lantalde Tekniko eta Batzorde Iraunkorraren iritzia.

8.6 Nazioarteko Egunak: Txapelketak

Lan arlo bakoitzak bere nazioarteko egunak ditu eta Komunikazio teknikariarekin batera EGKren sare sozialetarako publikazioak prestatzen dira. 2022rako EGK gehiago ezagutarazteko eta nazioarteko egun hauek aldarrikatzeko, Komunikazio arlotik erabaki da egun hauetan sormenezko txapelketak egitea. Argazki, kartel edo reel lehiaketak.

Helburuak

HELBURU ORKORRAK:

Nazioarteko egunak aldarrikatzea eta gazteen sormenarekin batera EGKren irudia ezagutzera ematea. Txapelketaren finala Bilboko bulegoan izango litzateke finalisten artean.

HELBURU ZEHATZAK:

- Nazioarteko eguna aldarrikatu.
- Gazteek sormena landu.
- Gazteen egoera desberdinak ezagutu.
- EGKren irudia ezagutzera eman.
- Sariak EGK-ko Bilboko egoitzan banatuko dira, gazteen erabaki eta errealitate desberdinak partekatzen diren bitartean.

Garapena

Hainbat nazioarteko egun ospatzen dira EGKtik baina txapelketak ez dira guztietan egingo. Teknikariekin adostu ondoren erabaki da bi txapelketa egingo direla; batetik ekainaren 28an

(Harrotasunaren Nazioarteko Eguna) eta bestetik abenduaren 3an (Euskararen Nazioarteko Eguna). Nazioarteko eguna baino hilabete bat lehenago txapelketaren deialdia aterako litzateke

EKINTZAK:

Txapelketen deialdiak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Aztertu zelako feedback-a izan duen argitalpena EGKren sare sozialetan.
- Aztertu zenbat pertsona parte hartu duten txapelketan eta ondorioztatu ia eraginkorra den horrelako ekintzak egitea EGK ezagutzera emateko.

8.7 Lan-arloka sareak sortu

Gazteen parte-hartze ereduak eraldatu dira eta, jada, elkartegintza ez da hau bideratzen duen modu bakarra. Hori dela-eta, EGKtik garai berrietara moldatzeko esfortzua egin da azken urteetan eta 2022an jarraipena emango zaio batetik, lan-arlo bakoitzarekin elkarlanean aritu daitezkeen eragileak identifikatuz; eta, bestetik, proiektu edo egitasmo bakoitzean interesa izan dezaketen elkarte edo norbanakoak identifikatuz. Era horretan, apurka-apurka kontaktu zerrenda osatzea eta EGKren parte-hartzea are pluralagoa izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren lan-arlo bakoitzeko harreman-sarea osatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lan-arlo bakoitzak egiten dituen lantalde, bilera edo ekimenetan parte-hartzaile kopurua igotzea.
- Elkarlanean eragile gehiagorekin aritzea.

- EGK ezagutaraztea.
- EGKren marka sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-ko lan-arloekin modu batera edo bestera elkarlanean aritu daitezkeen elkarteen zerrenda osatu.

Egindako zerrenda EGK-ko lan-arloek antolatutako ekimenetarako erabili.

2022an zehar egindako agenda ebaluatu, lortu diren kontaktuekin izandako elkarlana aztertu eta 2023rako falta daitezken profilak identifikatzen saiatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lan-arloka teknikari bakoitzarekin lan-arlorako sortutako sarea ebaluatu: kontaktuak nahikoak diren, bidean sortu diren berriak gehitu.
- Lantalde Tekniko eta EGK-ko elkarteen proposamenak, egonez gero, kontuan izan.

8.8 Barne komunikazioa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren komunikazio oro ez da kanpora begirakoa. Barne komunikazioa ere oso garrantzitsua da, eta hau, Komunikazio teknikariaren ardura da. Batetik, Lantalde Teknikoa osatzen duten lan-arloen artekoa; bestetik, Lantalde Teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren artean; eta, azkenik, EGK osatzen duten ia 60 erakundeekin. Hiru euskarri hauen funtzionamendu egokiak soilik bermatzen du EGKren funtzionamendu egokia eta eraginkortasuna, are gehiago COVID-19ak sortutako beharrizanekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) barne-komunikazioa hobetzea, bai Lantalde Teknikoa osatzen duten lan-arloen artean, bai lantaldearen eta Batzorde Iraunkorraren artean eta bai EGK osatzen duten elkarteen artekoa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bileren denbora murriztea eguneroko komunikazioa arinagoa eginez eta hobetuz.
- Lan-arloen artean sinergiak sortzea.
- EGK osatzen duten erakundeekin harremana sendotu, haien presentziari garrantzia gehiago ematea (webgune, sare sozialak, **Piztu! buletin digitala**.
- COVID-19ak sortutako egoeretara egokitu (zoom, Skype).
- Batzorde Iraunkorrean parte-hartzea.

Garapena

Urte osoan zehar egingo den prozesua izango da. Presidentziarekin elkarlanean tarteka aztertuko da barne komunikazioa eta hau hobetzeko neurriak hartuko dira.

Bestetik. EGK-ko elkarteekin harremana mantenduko da webgunean dauden haien datuak eguneratuak izateko, **Piztu! buletin digitala** eta sareetan euren edukiak zabaltzeko eta EGK-k egiten duenaren feedback-a jasotzeko

EKINTZAK:

Barne komunikazioa kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantalde Teknikoaren barne komunikazioa nolakoa izan den.
- Teknikari eta loturen arteko komunikazioa nolakoa izan den (Teknikari eta Batzorde Iraunkorreko kideei galdetuta ebaluatuko da).
- Lantalde Tekniko eta Batzorde Iraunkorraren arteko komunikazioa nolakoa izan den (lantalde tekniko eta Batzorde Iraunkorrari galdetuta ebaluatuko da).

8.9 Komunikabideekin harremana

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) ekintza zein parte hartzen duen ekimenen hedapena egin. Honetan sartzen dira, besteak beste:

- Prentsaurrekoak eta prentsa-oharrak egin.
- EGKren ekitaldiak hedabideen agendan argitaratzeko bidali.
- Hedabideek eskatutako elkarrizketak kudeatu, baita EGKren proiektuen aurkezpen elkarrizketak (EGK-k proposatutakoak).
- Kazetarien eskaerak eta proposamenak kudeatu.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak zerrendatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko gazteen interesekoak diren edo izan daitezkeen gaiak hedabideen eta, beraz,

gizartearen agenda mediatiko eta sozialean txertatzea.

Garapena

- Aldian aldiko prentsaurrekoak egin, hauen ostean prentsa-oharra bidali hedabideei eta bertako albisteetan EGKren manifestu eta komunikatuak zabaldu.
- EGK-k dituen hainbat protokoloen aktibazioa eta hedapena: lan istripuen ondorioz zauritu edo hildako pertsona gazteak, Indarkeria Matxistaren eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloa eta pertsona gazteen Giza Eskubideen urraketaren harira aktibatzeko protokoloa.
- Deialdiak agendatan txertatu.
- Iritzi-artikuluak idatzi eta txertatu.
- EGK aurkezten dituen txosten, proiektu eta egitasmoen harira elkarrizketak lotu.
- Kazetari eta hedabideen datu basea eguneratua mantendu.
- Indarkeria Matxistari buruz kontzientziatu, honen hainbat forma ezagutzera eman eta EGK-k Indarkeria Matxistaren aurka lan egiten duen entitate gisa duen konpromisoa berretsi.
- Gazteek bizi proiektua egiteko behar duten baldintza sozioekonomikoak bermatzeko eskaria gizarteratu.
- Gazterian arazo honek duen pisua eta seriotasuna gazte diskurtso batetik aztertu.
- Gazteek dituzten aurre egiteko proposamenak eta eskura dituzten baliabide desberdinak gizarteratu eta aditzera eman.

EKINTZAK:

Komunikabideekin harremana

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hedabideetan izandako agerraldi kopurua, baita jasotako elkarrizketa eta erreportaje eskari kopurua.
- Lortutako kontaktu berriak.

8.10 Egunerokoa

Plangintzan zehar zehaztutako guztiaz gain, egunerokoan beste hainbat kontu sor daitezke, besteak beste, bulegoan gerta daitezkeen kontuak, jasotako dei eta galderen kudeaketa, aholkularitza zerbitzuak, memoria eta plangintzak garatzea, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Komunikazio teknikariaren egunerokoan sortzen diren bestelako kontuak kudeatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Egunerokoan sortzen diren kontu ezberdinak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

8.11 Beste lan-arloekin harremana

EGK-k jarduera ugari egiten ditu urtean zehar. Komunikazio lan-arloarekin zerikusi zuzena ez badute ere, teknikariaren ardura da hauen zabalpenean laguntzea eta gainerako lan-arloekin (Etxebizitza, Enplegua, Hezkuntza, Partaidetza, Bakea eta Bizikidetza, Berdintasuna, Agenda 2030 eta Administrazioa) elkarlanean aritzea.

Etxebizitza

- Gazteak eta emantzipazioa (Emantzipa...zer? Lantaldea)
- Mapa interaktiboa
- Genero arrakala etxebizitzan
- Diskriminazioa(k) alokairuan
- Emantzipatzeko migrazioak

Enplegua

- Gazteak eta emantzipazioa (Emantzipa...zer? Lantaldea)
- Lan istripuen protokoloa
- Nazioarteko egunak
- Gazteak eta nekazaritza
- Gazte Bermea (Garantia juvenil)
- Etxeko langile gazteak
- Oinarrizko Errenta Unibertsala eta BGE (RBU+RGI)
- Gazte ekintzaileak

Hezkuntza

HEZKUNTZA FORMALA

- Hezkuntza Foroa
- Eskola Kontseilua
- Gazte solasaldiak

HEZKUNTZA EZ FORMALA

- Astialdiko ekintzen jarraipena eta zabalpena
- Boluntariotzaren lanketa
- Hezkidetza astialdian
- Entzun Gaitezen

Parte-hartze

- Gizarte Aldaketarako Herritartasuna
- Gobernu Irekia
- Partaidetza plana
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan

- Gazteriaren Foru Transpirenaikoa
- Material eta gelen lagapen zerbitzua
- Aholkularitza zerbitzua
- Lantaldeen koordinazio eta jarraipena

Bake eta Bizikidetza

- Etikasi programa
- Bake lantaldea
- Gasteizeko ZAS!
- Guztiok Batera
- Entzun Gaitezen
- Diskriminazioa(k) alokairuan
- Protokoloa
- Zurrumurruen sarea

Agenda 2030

- 2030 Agenda EGKn
- 2030 Agendan formakuntza
- EGKn Agenda 2030 hedapena: Webgunea eta Sare Sozialak
- Agenda 2030 Dokumentala + Agenda 2030 proiektu ibiltaria
- Guztiok Batera
- Nazioarteko egunak

Berdintasuna

- Gaur8 lantaldea
- EGK-ko II Berdintasun Plana
- Gune Anitza
- Berdintasun Protokoloak
- Nazioarteko egunak
- Zaintzen plaza

Gai administratiboak

- EGKren egunerokotasunean sortzen diren lantxoak kudeatu.
- Datu Babeserako legea betetzea

9. PRESIDENTZIA

9.1 Batzorde Iraunkorra

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGK-ko eskubide osoko kide diren elkarteetako 11 ordezkarik osatzen dute. Horrela banatzen da: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea da.

2021ean osatu zen egun Iraunkorra osatzen duen taldea. Hori dela eta, aurten, Batzorde Iraunkorra mantenduko da eta aginduaren bigarren urteari ekingo dio. Batzarrean onartzen den plangintza aurrera ateratzeko ahalegina egin eta urtean zehar, dagokion erabaki berriak hartu beharko ditu.

Bestalde, Presidenteak zubi-lana egiten jarraituko du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira, txandaka. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da Batzorde Iraunkorrean eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, Presidentziatik Batzorde Iraunkorra gai guztien berri emateko lana egingo da baita bileretatik at ere, telefonoz eta emailez nagusiki.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKri dagokion gaien gaineko erabakiak bideratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa lantzea.

- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu eta taldetasuna lantzea.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna sustatzea.
- Ardura banaketa bermatzea.
- Batzorde Iraunkorreko kideen parte-hartzea sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Batzorde Iraunkorraren bilerak.

Lantalde Teknikoarekin bilerak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Gizarte-oihartzuna.
- Elkarteen erantzuna.

9.2 Lantalde teknikoaren koordinazioa

Lantalde Teknikoa EGK-ko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta arlo bateko proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezen eta koherentzia bermatu dadin.

Presidentziaren aldetik lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bilatuko dira eta zubi-lana egingo da Batzorde Iraunkorraren eta Lantalde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako erabakiak bigarrengora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko.

Hala, bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Lantalde Teknikoa hilabetean behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilera hauen deialdia eta dinamizazioaren ardura presidentearenak dira. Ostiralero Skype bidezko bilera teknikoak egiten dira. Hortaz gain, astelehenero presidentzia teknikariekin banan-banan koordinazio bilerak burutuko ditu astea ondo koordinatuta izateko. Pandemia hasi zenetik bilera gehienak online izatera pasatu arren, presentzialtasuna bilatuko da.

Aurten ez da aldaketa handirik espero, lau teknikari berri sartu ziren 2021ean eta Lantalde Teknikoaren egonkortasuna lortzea da helburu nagusia.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean zubi-lana egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bermatzea.
- Lantaldearen beharrei erantzuna ematea.
- Lantaldearen lanari jarraipena ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Lantalde Teknikoaren bilerak.

Batzorde Iraunkorrarekin bilerak.

Teknikari berrien aukeraketa prozesua.

Egunerokotasuna.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Teknikarien arteko koordinazioa.
- Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko informazio trukaketa.
- Gatazka eza.

9.3 Batzorde Ekonomikoa

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGK-ko administraria, diruzainak eta presidenteak osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarteen kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-uneko gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan 2022ko aurrekontuaren kudeaketa egingo da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, administrazioarekin hitzarmenak negoziatuko dira. Honez gain, beharrezkoak izango diren gastuak balioetsi eta onartuko dira. Hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatuko dira eta aurrekontuaren aurreikuspena egingo da.

Hortaz gain, 2018an hasitako auditoretzari jarraipena emango zaio eta informazio guztia prestatuko da Batzar Orokorrean aurkezteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egitea eta alor honetan unean uneko erabakiak hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2022ko aurrekontua prestatzea.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatzea.
- Diru-sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egitea.
- Balantze ekonomikoa prestatzea.

Garapena

Batzorde Ekonomikoa urtean hiru aldiz elkartuko da gutxienez, kontuei jarraipena emateko, hartu beharreko erabakiak hartzeko eta dauden arazoei aurre egiteko. Urte honetan, oso garrantzitsua izango da gastuaren kudeaketa ondo gauzatzea behar guztietara heltzeko. Aldi berean, hurrengo urterako behar diren akordio eta hitzarmen berriak aurkeztuko dira Batzorde Iraunkorrean beharrezkoak diren eskaerak gauzatzeko.

EKINTZAK:

Batzorde Ekonomikoaren bilerak.

Aldundiekin bilerak.

Eusko Jaurlaritzarekin bilerak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egoera ekonomikoa.
- Egindako bilerak eta hauen eraginkortasuna.
- Diru-sarrera eta gastuen arteko oreka.
- Hurrengo urterako aurreikuspena.

9.4 EGK-ko Batzar Orokorra

EGKren Batzar Orokorra urtero ospatzen da. Bertan, EGK-ko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria eta urte horretarako plangintza aurkezten zaie, onartu edota atzera bota ditzaten. Gainera, kide berrien sarrera bozkatzen da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetik behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Batzar Orokorrean, horregatik

aurten aukera emango da libre dauden lekuak elkarteek betetzeko.

Batzarraren prestaketa Batzorde Iraunkorrari badagokio ere, Presidentea da Batzarreko mahaiko arduraduna eta Batzarra dinamizatzen duena.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
2022ko Batzar Orokorra koordinatzea eta dinamizatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Batzarrerako beharrezko dokumentazioa prestatzea.
- Aldez aurretik elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztea.
- COVID-19ko segurtasun neurriak bermatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Memoria eta plangintzaren prestaketa.

Elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.

Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Egindako lanaren kontu ematea.
- Batzarraren eraginkortasuna.
- Elkarteen iritzia.
- Hartutako erabaki kopurua.

9.5 Elkarlana eta ordezkaritza

9.5.1 Eusko Jaurlaritza

Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak partekatzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantzaketa-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik dator.

Aurten, EGKren lana balioan jartzeko ahaleginean jarraituko da. 2021ean, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin harremana mantendu zen: Bake eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu Zuzendaritzarekin, Hezkidetza Planarekin, Kanpo Harremanetako Zuzendaritzarekin, Emakunderekin eta Etxebizitza zuzendaritzarekin. Lortutako emaitza arrakastatsuetan oinarrituz, 2022an elkarlan horiekin jarraitzea da asmoa.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Elkarlanerako guneak identifikatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zuzendaritza eta idazkaritza ezberdinekin informazio trukaketa bermatzea.
- Lankidetza sustatzea.
- EGKren aurrekontua egonkortzeko lana egitea.
- Eragin politikoa izatea.

Garapena

EKINTZAK:

Informazio trukaketa bilerak.

EGKren lana balioan jartzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Lankidetza gune berrien sorrera.
- Aurrekontuan eragina.

9.5.2 Aldundiak

Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere gazteen egoera, behar eta interesen inguruan lan egiten da. Horretarako, 2022an lurralde historiko bakoitzeko foru administrazioarekin harremana mantentzeko ahalegina egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Elkarlanerako guneak identifikatzea (Gaztematika, GazteBiz, gazteen egoera sozioekonomikoa, elkartegintzaren errealitatea...)

HELBURU ZEHATZAK:

- Lankidetza sustatzea.
- Hitzarmenetako aurrekontuak bermatzeko lana egitea.
- Gazteen iritzia helaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Elkarlanerako guneen identifikazioa.

Aurrekontuaren inguruko lanketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Lankidetza gune berrien sorrera.
- Lankidetzaren eraginkortasuna.
- Aurrekontuan eragina.

9.5.3 Eusko Legebiltzarra

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGK-k agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean Gazteria Batzordearekin bilduaz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Horrez gain, EGK-k zenbait proiektu eta horien ondorioak plazaratzeko agerraldi eskaerak egin ohi ditu.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gainean erantzuna emateko, bertaratu eta hala egingo da. 2014ean Gazteen Lantaldea abian jarri zenez, parte-hartze aktibo bat izateko ahalegina egin da, baina taldearen aurrera pausoen arabera izango da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztea.
- Legebiltzarkideen agerraldi-eskaera eta galderei erantzuna ematea.
- Erakundeei eta gizarteari gazteen egoeraren berri ematea.
- Legebiltzarkideekin harremana mantentzea.

Garapena

EKINTZAK:

Ohiko agerraldia

Agerraldi eskaerei erantzuna eman

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerraldien maiztasuna.
- Agerraldien kalitatea eta eragina.
- Legebiltzarkideekin intzidentzia politikoa egitea.

9.5.4 Batzar Nagusiak

Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Lurralde Historiko bakoitzeko gazteria politiken inguruko hausnarketa eta gazteen egoeraren inguruko datu eta informazioa Batzar Nagusietan plazaratzeko ahalegina egiten da agerraldien bitartez.

Horretaz gain, hitzarmena sinatu aurretik, aurrekontu garaian, EGK-k bere jardunaren berri ematen saiatzen da alderdi ezberdinekin bilduz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Elkarlana sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren presentzia instituzioetan egonkortzea.
- EGKren egitekoaren berri ematea.
- Lurraldeko gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Hitzarmenak negoziatzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerpenen maiztasuna eta eragina.
- Hitzarmenak lotzea.
- Komunikabideen erantzuna.

9.5.5 Udalak

Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak instituzioekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Oro har, EGKren ekarpena gazteria politikei egiten zaie Gazte Planak edo bestelako proiektuen bitartez. Horietarako, eratuta dauden estrukturetan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, harremana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea... presidentziaren bitartez burutzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Politika publikoetan eragitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana eta ondorioak zabaltzea.
- Gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Gazteria politikei ekarpenak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna eta eragina.
- Hausnarketen sakontasuna.
- Kolaborazio hitzarmenak sinatzea eta berritzea.

9.5.6 Beste Erakundeak

Urtean zehar Gazteria politiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraitua edukitzen da presidentziatik, hala nola: Nafarroako Gazte Kontseilua, Espainiako Gazte Kontseilua, Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Eskola Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua...

Horiez gain, EGK-k hainbat elkarterekin (EGKren barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, Bai Euskarari... Bi hauekin esaterako, hitzarmenen jarraipena egiten da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

EGKren ordezkaritza egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlana eta sinergiak bilatzea.
- EGKren hitza eta iritzia zabaldu.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna eta eragina.
- Eragile berriekin harremanak.
- Eragileen arteko koordinazio eta proiektuen eraketa.

9.5.7 Komunikabideak eta irudi publikoa

EGK-k izaera publikoa eta ordezkari-izaera ditu eta lantzen dituen gaiak gaurkotasunekoak eta zenbait sektoreren interesekoak dira. Hau dela eta, Kontseiluak hainbat agerraldi publiko egiten ditu, batzuk EGK-k berak deituta, beste batzuk medioek edo bestelako eragileek deituta.

Hala, 2022an zehar ere komunikabideetan, elkarrizketetan eta prentsaurrekoetan, aurkezpenetan eta hitzaldietan parte hartuko da, EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

EGK publikoki ordezkatzea eta EGKren hitza eta iritzia gizarteratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarrizketetan eta aurkezpen publikoetan EGK ordezkatzea.
- EGKren argitalpenetarako zein komunikabide idatzietarako iritzi-artikuluak eta elkarrizketak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerpenen maiztasuna eta hauen eragina.
- Komunikabideen erantzuna.

9.6 Gazteria Legea

EAEn Gazteria Lege bat abiatzeko saiakera batzuk egon dira, azkenekoa 2019an hasi zen. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren Presidentziak izandako eginkizunetako bat honen jarraipena egitea izan da. Asko izan dira egindako ekarpenak, egindako bilerak etab. Hori dela eta, 2022an Gazteria Legea plenora eramango da eta EGK-k honen jarraipena egingo du.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

EGK-ko elkarte eta gazteen iritzia jasotzea eta legean islatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren ordezkaritza egitea.
- EGKren ikuspuntua zabaltzea.
- Eragin politikoa egitea.

Garapena

Gazteria Legea martxoan onartua izatekotan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren betebehar bat honen sozializazioa izango da. EGKren asmoa Gazteria Legeak gazteen bizitzan duen eragina zabaltzea da. Sareetan zein medioetan honen sozializazioa sustatuko da.

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Legean ezarritako proposamen kopurua.
- Bileren maiztasuna.
- Egindako bileren eraginkortasuna.
- Legearen onarpena eta sozializazioa.

9.7 Gobernu irekia (OGP)

Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiak eta hiru hiriburuetako udalek proiektu berri baten parte izatea erabaki zuten. OGPrako aurkeztu eta hautatuak izan ziren. Proiektu hau aurrera eramateko foro ezberdinak sortu behar zituzten eta horietako bat Foro Erregularra izan da.

Foro horretan hiru administrazio mailetako ordezkariak eta gizarte zibilak aukeratutako ordezkariak daude. Azken hauen papera, gizartearen interesak zein beharrak defendatzea da. Beraz, EGKren izenean Presidentziak Foro Erregularrean parte hartzen jarraituko du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eragin politikoa izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen iritzia erabaki guneetara hurbiltzea.
- Gazteen ikuspuntua txertatzea.

Garapena

EGK-ko Presidentzia Foro Erregularraren parte da eta OGPko planen garapenari jarraipena egingo zaio. Aldi berean, gizarte zibileko ordezkariak bilerak egitea erabakitzen dutenean hau bertan izango da ere. Honen asmoa EGK gazteriaren ikuspegia hainbat esparru berrietara hurbiltzea eta hauek ezagutzera ematea da.

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Konpromisoen garapenean gazte ikuspegia ikustea.
- OGP-ko planaren ebaluazioko datuak.
- Gazteen partaidetza.

9.8 Europako Gazteen Urtea

2021eko abenduan Europako presidenteak 2022. urtea Gazteen Europako Urtea izendatu zuen. Hori horrela, hainbat izango dira Estatu mailan zein EAEn egingo diren lanketak eta ekitaldiak. Hori dela eta, EAEn Gazteriarekin lotuta egingo diren ekitaldiaren lidergotza EGK-k eramango du beste hainbat eragileekin batera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen Europako Urterako ezarritako planteamendua sozializatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k gazteen iritzia hainbat esparru berrietan zabaltzea.
- Gazteen partaidetza espazioak aldarrikatzea.
- Europan dauden gazteei zuzendutako politikak ezagutzera ematea.
- Harremanen sarea handitzea.

Garapena

Europako Gazteen Urtea ezarri denean hainbat izan dira mahai gainean jarritako helburu eta erronkak. Hori horrela, EGK-k Euskadin hauek ere bultzatzea eta lantzea lortu nahi du. Horretarako, EGK-k urte honek ekarriko dituen ekitaldien eta politika berrien parte izatea ezinbestekoa da.

Urte honek, Europa lan ildo bezala duten elkarteekin lan egiteko eta baita honetan harreman berriak sortzeko aukera ematen du.

EKINTZAK:

Ekitaldietako beharrak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Izandako oihartzuna.
- Sortutako ekitaldien arrakasta.
- Harremanen arrakasta.